

# Goienkaria

EGUBAKOITZA • 2004ko apirilaren 30a • IV. urtea • 153. zenbakia • DOAN BANATZEKO



BARRUAN,  
ZURE HERRIKO  
ALDIZKARIA



**XABIER ZUMALDE** / ETA-KO BURUZAGI OHIA  
*"Ez Francok, ez Guardia Zibilak ez ninduten isilarazi, eta orain EAJk ere ez nau isilaraziko" /7*

**Goienka2a**  
 Euskal Zeramikarien  
 I. Topaketa egiten  
 dihardute Arrasaten

## 'GOIENKARIA'-REKIN: AUTOEN GAINEKO GEHIGARRIA BARRUALDEAN

**ASTEKO GAIA:** LANGILEAREN EGUNA OSPATUKO DA BIHAR, ZAPATUA /2-3

# Ibarrekoei deialdia bihar mobilizatzeko

Langilearen Nazioarteko Egune-rako, biharko, hiru ekitaldi nagusi deitu dituzte Euskal Herriko sindikatuek. Debagoieneko ordezkariak dei egin diete ibarreko langileei horietan parte hartzeko.

ELA, LAB, EILAS eta EHNEK kale agerraldi bateratua egingo dute Bilbon, *Langileak eta herriak, burujabe* leloarekin. Hiru sindikatuak ere bat egin du, nahiz eta deialdia ez izenpetu. Ibarreko ESK taldekoak Bilbora joan-

go dira; sindikatu horrek beste bi agerraldi ere deitu ditu, Iruñean eta Tuteran. Aurtengo leloa, hauex: *Patronalaren aurka, elkartasuna eta borroka erradikala*. Azkenik, CCOO eta UGT sindikatuek EAeko hiru hiriburuetan egingo dute kale agerraldia, *Zure eskubideak babestu* lelopean, eta debagoiendarrak Donostiakoan izango dira. Hainbat sindikatuk autobusak antolatu dituzte ibarreko herri nagusietatik.

### DEIALDIAK

- ELA, LAB, EILAS, EHNE, Hiru: Bilboko Jesusen Bihotzean, 11:00etan
- ESK: Bilboko Kale Nagusian, 11:30ean
- CCOO eta UGT: Donostiako Alderdi Ederrean, 12:00etan



IBAN ARANTZABAL

## Zubillagako hiltegia ez ixtea eskatu dute

Debagoieneko 110 baserritar eta harakinek eskualdeko abere hiltegia ez ixtea eskatu zuten eguaztenean Elgetan. Izan ere, Debagoieneko Mankomunitatea aztertzen dabil Zubillagako hiltegia ixtea, Jaurlaritza ere ixtearen aldekoa delako eta une honetan eskualdeko abere hiltegiak inbertsio handiak egitea eskatzen duelako. Mankomunitateak uztailean hartuko du azken erabakia, gai honetan inplikaturik dauden alde guztiei iritzirik eta proposamenak eskatu eta gero. /4



**HAINBAT PROTESTA EKINTZA GEUREAN** Lan Osasun eta Segurtasunaren Eguna izan zen eguaztenean, eta Debagoienean hainbat ekintza egin zituzten langile eta sindikatuek. Egun horretarako, ELA, LAB, ESK eta EILAS sindikatuek ordu erdiko lanuzteak deitu zituzten Euskal Herriko lan istripu tasa altua eta segurtasun eskasa salatzen, eta %80-85eko jarraipena izan zuen deiak. Bestalde, LAB eta Duina taldeek prekarietatea salatzen kale bilkura egin zuten Bergaran.

## Indonesiako altzariak

### Erdi-prezioan!


#### URRETXUN

Udaberri kanpaina  
 (maiatzaren 3tik uztailaren 18ra)

Indonesiatik inportaturik,  
 zure etxerako mota  
 guztietako tekazko altzariak

Orduetgia:  
 10:00etatik 13:00etara eta  
 17:00etatik 20:00etara  
 (astelehenean zopatura)  
 eta 11:00etatik 13:00etara (domeketan)

943 72 53 26  
 www.lba-antic.com



# Bihar mobilizatzena deitu dute sindikatuek

- Ibarreko ordezkariak eskatu dute hirietako agerraldietara joatea
- Gurean, sindikatuak eta langileak eguaztenean mobilizatu ziren lan segurtasuna bermatzeko eskatuz
- ELA, CCOO eta UGT sindikatuek autobusak antolatu dituzte guretik

LEIRE KORTABARRIA

**D**ebagoiengan presentzia duten euskal sindikatuek parte hartuko dute Maiatzaren Lehena ospatzeko Euskal Herrian deitu diren ekitaldietan. Gurean ez dute ekintzarik egingo, eta hirietako kale agerraldi eta mobilizazioetan esku hartuko dute.

Debagoieneko langileek urtero erantzun ona ematen dute sindikatuek egun horretarako deitzen dituzten ekitaldiei. Debagoieneko ordezkariak hemengo langileei dei egin diete bat egiteko, eta, urtero bezala, hainbat sindikatuk autobusak antolatu dituzte agerraldietara joateko. Hala egin ez dutenek ere dei egiten dute langileak euren kabuz joateko.

Horrenbestez, ibarreko langileriak mobilizaziorako jarrera erakusten jarraitzen du. Eta ez bakarrik bihar; izan ere, eguaztenean, Lan Osasun eta Segurtasunaren Eguna ospatu zen, eta orduan bai, hainbat ekintza egin ziren Debagoiengan.

Hainbat arlotako langileek badute zertaz arduratu egunotan Debagoiengan: esaterako, Bergarako Mizpirualde egoitzan azpikontratatuak 54 langileek publikoki salatzen dihardute hitzarmena blokeatuta dagoela, kale bilkuren bidez. Horrez gain, sindikatuek azpimarratzen duten moduan, "egunero gertatzen da lan istripuren bat". Eta gero eta gehiago nabarmentzen dute sindikatuek langile askok jasaten dituzten gaixotasun psikologikoak.

LAB sindikatuek prentsaurrekoa eman zuen Arrasaten aste hasieran, mobilizaziotara deituz eta datuak aditzera emanaz. Horien arabera, iaz 150 lan heriotza izan ziren Euskal Herrian.



Sindikatuak askotan protestatu dute ibarreko lan istripu tasa altuagatik.

ARTXIBOA

"Egunean, 220 lan istripu izaten dira, eta bi egunetik bi egunera langile bat hiltzen da Euskal Herrian", zioten.

#### HIRU EKITALDI NAGUSI EGONGO DIRA

Langilearen Eguna modu berdinean ospatuko dute Euskal Herrian. ELA, LAB, EILAS eta EHNE sindikatuek deialdi bateratua egin dute. Garraiolarien Hiru sindikatuak ez du izenpetu, baina esan du "ados" dagoela deialdi horrekin. Bilbon egingo dute kale agerraldia, bihar, 11:00etan, Jesusen Bihotzetik

abiatuta, eta han izango dira debagoiendar asko ere.

Euskal Herriko sindikatu nagusiek *Langileak eta herriak, burujabe. Borrokatzeak merezi du* leloa aukeratu dute aurtengo. Bi aldarrikapen nagusi egiten dituzte: bata, langileen eskubiak "klase gisa"; bestetik, Euskal Herriaren eskubideak herri bezala. Honela uztartzen dituzte: "Euskal Herri justu eta solidarioa nahi dugu, eta helburu horren inguruan indarrak bildu eta esparru soberanista eta aurrerakoia sortu behar dugu", diote Bilboko

## ULMA

ULMA Hormigón Polímero, Koop. E.  
Oñati

### OHIKO BATZAR NAGUSIA DEIA

EGUNA: 2004ko maiatzaren 7a  
ORDUA: 15:30ean lehen deialdia eta 16:00etan bigarrena  
TOKIA: Oñatiko Kultur Etxea

#### GAI ZERRENDA

1. AURREKO AKTAREN ONARTZEARI BURUZKO TXOSTENA ETA BATZAR NAGUSI HONEN AKTA ONARTZEKO BAZKIDEAK IZENDATZEA
2. 2003KO EKITALDIKO MEMORIA IRAKURTZEA ETA ONARTZEA, ETA 2004KO GESTIO PLANA BERRESTEA
3. ULMA TALDEARI BURUZKO TXOSTENA
4. 2003KO EKITALDIKO KONTUAK ETA BALANTZEA AZTERTZEA ETA, HALA BADAGOKIO, ONARTZEA.
5. SOBERAKIN GARBIAK BANATZEA
6. HEZIKETAKO ETA KOOPERATIBA-SUSTAPENEN FONDONEN (H.K.S.F) ERABILERA
7. EKONOMI ARAUBIDEKO ESTATUTU-XEDAPENAK
8. EGITURAZ GAINDIKO ERAKUNDEEKIN ZERIKUSIA DUTEN GAIK
9. ESTATUTU SOZIALEN 31, 46, 53, 56 ETA 58. ARTIKULUAK ALDATZEA
10. KONTSEILU SOZIALA ETA ZAINZTA-BATZORDEAREN SORTZEA DELA ETA, ESTATUTU SOZIALAK ULMA TALDEKO ESTATUTU SOZIAL HOMOGENEIZATUEI EGOKITZEA
11. KOOPERATIBAKO BARNE-ARAUDIAREN 40 ETA 46. ARTIKULUAK ALDATZEA
12. KONTSEILU SOZIALA ETA ZAINZTA-BATZORDEAREN SORTZEA DELA ETA, KOOPERATIBAKO BARNE-ARAUDIA ULMA TALDEKO BARNE-ARAUDI HOMOGENEIZATUARI EGOKITZEA
13. KONTSEILU ERREKTOREAREN JAKINARAZPENAK
14. KONTSEILU ERREKTOREKO KIDEAK BERRITZEA
15. ZAINZTA-BATZORDEKO KIDEAK IZENDATZEA
16. KONTSEILU SOZIALEKO KIDEAK IZENDATZEA
17. GALDERAK ETA ESKAERAK

Oñati, 2004ko Apirila

OHARRA: Kontabilitate Liburuak eta Estatutu Sozialen eta Kooperatibako Barne Araudiaren artikuluen aldaketei buruzko informazioa bazkide gutzientz eskura daudela jakinarazten da

## BASABEDAR taldearen...

#### Maiatzeko ikastaroak

Fotovoltaika  
Fototermika  
Sendabelarrak eta ekosistemak

#### Eta aurkezpena

'Arbasoen argi iraunkorra' film laburra

**Izenematea:** Gazte Bulegoa  
Tel.: 943 77 00 65 Arrasate Posta-e: basabelar@yahoo.es  
**Antolatzailea:** Basabedar Taldea



### PREVISORA BILBAINA

ASEGURUAK

Osasun zerbitzuen eskaintza zabalagoa duen HERIOTZA-ASEGURU bakarra.

Hitzartutako mediku, dentista, optika-kate eta bainuetxeetan **DESKONTUAK**

Zerrajera kalea 4, 1.  
ARRASATE  
Tel.: 943 79 22 19

agerraldian parte hartzeko deialdian. Horiez gain, beste honako aldarrikapenak jotzen dituzte garrantzitsuen: lan harremantarako eta babes sozialerako eskual esparrua; lan baldintza hobekak; diskriminazioaren aurkako borroka; zerbitzu publikoen privatizazioaren eta azpikontratazioaren aurka; eta eredu sozial justu eta solidarioaren aldeko lana.

ESK sindikatua, bestalde, bere aldetik mobilizatuko da bihar. Patronalaren aurka, elkartasuna eta borroka erradikala leloarekin kale agerraldia deitu du Bilbon, Kale Nagusian, 11:30ean. Iruñean eta Tuteran ere manifestatuko dira. ESK-ko ibarreko ordezkariak ez dute autobusik antolatuta hara joateko; edozelan ere, sindikatu horrek "Gipuzkoatik 70 bat bazkide" joatea espero du. Aurtengo aldarrikapen nagusiak bi dira: "Patronalarekiko erabateko gaitzespena eta borroka erradikala, eta langileen elkartasunaren defentsa". ESKren ustez, "kultura errebindikatzaile berria sortzen ari da" eta, horrek aurrera egin dezan, ezinbestekoa deritzote langileen batasunari: "Badakigu batasuna funtsezkoa dela borroketan eta garaipenetan", diote.

UGT eta CCOO sindikatuek elkarrekin ospatuko dute Maiazaren Lehena, EAEko hiru hiriburuetan. Debagoienetik autobusak irtengo dira Donostiara. Alderdi Ederretik abiatuko da agerraldia 12:00etan, eta leloa, honakoa: *Zure eskubideak babestu, zeuk erabaki*. Ibarreko UGT-ko arduradun batek esan duenez, aurtengo aldarrikapen garrantzitsuen "enplegu egonkor eta segurua" izango da, eta "lan kontratuen behin-behinekotasuna salatuko dugu", esan dute.

#### LAN OSASUN ETA SEGURITASUNA

Langilearen Nazioarteko Egunerako buru-belarri prestatu dira ibarreko sindikatu eta langileak, baina astean zehar ere izan da zer aldarrikatu, geuretik irten gabe.

Izan ere, eguaztenean, hilak 28, Lan Osasun eta Seguritasunaren Eguna izan zen. Hori delatena, lan geldialdiak deitu zituzten sindikatu guztiek 09:00etatik 09:30era, langileek batzarrak eta elkarretaratzeak egin zituzten. Bestalde, egun berean, LAB sindikatuak eta Duina gazte talde sortu berriak kale bilkura egin zuten Bergaran, *Prekarietateak gazteak akabatuko gaitu* leloarekin.



LAB sindikatuak eta Duina taldeak kale bilkura egin zuten Bergaran, Lan Osasun eta Seguritasun egunean.

Bihar lan arloko arazoak salatuko badituzte, herenegun, horietatik larrienetako baten gaineko gogoeta bultzatu zuten. Sindikatuek darabiltzaten datuak beldurgarriak dira: iaz, Euskal Herrian 150 lan heriotza izan ziren, Europako batz bestaren bikoitza.

Orain lauzpabost urte hasi ziren Lan Osasun eta Seguritasuneko eguna aldarrikatzen, eta gero eta entzunagoa da. Sindikatuen helburua da "langileak kontzientziatzea", LABek dioen bezala: "Aurten, inflexio puntu bat markatu nahi izan dugu. Gero

eta lan istripu gehiago gertatzen dira, eta langileak animatu nahi ditugu horren gaineko gogoeta egitera, ez bakarrik geldialdiak irauten duen ordu erdian, baizik eta urte osoan".

ELA, LAB, ESK eta EILAS sindikatuek idatzi bateratua zabaldu zuten egun horretan. Han esaten zuten, euren ustez, "patronalak ez du lan osasunaren araudia betetzen" eta horrekin "behin betiko" amaitu behar da; bestalde, prekarietatea, behin-behinekotasuna eta birkontratatzea aipatu zituzten "ezbehar tasaren eta osasun

galeraren funtsezko eragile" bezala. Administrazioari kexuok helarazteko batzarrak egin zituzten ibarreko udal bakoitzean. "Zerbitzu publikoetan, azpikontratu asko egiten dira lan berean, eta horrek jarraipen eta prebentzio eza dakartza. Gu prest gaude sindikatuko pertsona bat horretarako izendatzeko, eta hala adierazi dugu", zioen ELAk. Gurean, egoera horren adierazle bezala Eibar-Gasteiz autopistako lanak aipatu zituzten. Udalak ahalegin handiagoa egingo zuela erantzun zien.

#### EKINTZA BATERATUA EGINGO DUTE ELAren eta LABen arteko elkarlana, indartsu, tirabirak atzean utzita

Iaz bezala, bi euskal sindikatu nagusiak, ELA eta LAB, elkarrekin mobilizatuko dira. Bi sindikatuon arteko harremanak oso une onetan daude, baina beti ez da horrela izan. Elkarlana 1994an hasi zen estutzen, Lan Harremanen Euskal Esparrua aldarrikapen komun aitortu zutenean, eta aldi onak eta malkartsuak bizi izan ditu. 2001ean, une larriak izan zituen harremanak, baina bere onera itzuli zen iaz *Euskaldunon Egunkaria* itxi eta bat egin zutenean.

#### %80-85-EKO JARRAIPENA Debagoieneko langileriak babesa eman zion lanuzte deialdiari

Eguazteneko lanuzteak %80-85eko jarraipena izan zuen ibarrean, sindikatuen arabera. Industria, metal, osasun publiko, zerbitzu, hezkuntza... sailek babesa eman zioten deialdiari. Goiena Komunikazio Zerbitzuak Kooperatibak ere lanuztea egin zuen, honakoek bezala: Garai, Polmetasa, Aceralia, Candy, Zahor, Osakidetza, Mayc, hainbat udal, eta abarrek. Helburua zen lan osasun eta segurtasunik ezaren aurka protestatzea.

#### AUTOBUSAK ELA, CCOO eta UGTk autobusak antolatuta dituzte ibarretik biharko

CCOOn autobusak Arrasateko geltokitik irtengo da 08:30ean, eta Bergaran geldialdia egingo du Donostiara bidean. ELAren autobusak 09:00etan irtengo dira Arrasate eta Oñatitik Bilbora; Bergaran 09:15ean geldituko dira. Azkenik, UGT sindikatukoek Arrasateko euren egoitzaren parean dute hitzordua, 10:00etan; Bergaran ere geldituko dira. Edizio hau ixteko orduan, LABek oraindik ez zuen erabaki autobusa antolatuko zuten edo ez.

**Carrion música, s.a.**

- Gitarrak, baxuak, amplifikadoreak, teklatuak, soinu ekipamenduak.
- Pianoak eta trikitiak errentan hartzeko aukera, eta erosteko.

Manuel Iradier 20 / Dato 42  
Tel.: 945 23 07 49  
GASTEIZ

**Olatz Alcelay Dk.**  
Kirurgia plastiko, estetiko eta konpontzailean espezialista

Lipoeskultura-Liposukzioa  
Betazal kirurgia  
Sudur kirurgia  
Belarriak zuzendu  
Sabel kirurgia  
Bularrak handitu eta txikitu  
Aurpegi liftinga

Santa Maria de la Asuncion klinika  
Izaskun errepidea 9 · TOLOSA · Tel.: 943 67 57 77

Virgen del Pilar osasun etxea  
Zarategi pasealekua 10 · DONOSTIA · Tel.: 943 29 75 88

INSTITUTO VASCO-NAVARRO DE CIRUGIA PLASTICA Y ESTETICA

RPS 019/03

**ZUREZKO BIZILEKU BIOKLIMATIKOAK**

**Zbb**

C/ZORROLLETA, 5  
01015 GASTEIZ  
T. 945 29 06 06  
615 78 28 23  
WWW.ZBB.ES



IBAN ARANTZABAL

Baserritarrak, harakinak, politikariren bat eta herritarrak Zubillagako hiltegiaren defentsan agertu dira.

## Uztailean hartuko dute Zubillagako hiltegiaren gaineko azken erabakia

Orain, epe bat zabaldu dute alde guztien proposamenak jasotzeko

OIHANA ELORZA

**Bi hilabetez atzeratu du Mankomunitateak Zubillagako hiltegiaren gaineko azken erabakia, eta uztailean esango du itxi egingo duen edo ez. Baserritarrek eta harakinek protesta egin dute eta hiltegiaren alde daudela esan dute.**

Ignacio Lakuntza Mankomunitateko presidentek esan du hiltegiak galerak eragiten dituela, eta horrez gain, gaur egungo segurtasun neurriak ez dituela betetzen eta aldaketak behar dituela.

Debagoieneko baserritarrak eta harakinak, bestetik, oso haserre daude gai honekin. German Arbulu ordezkariaren esanetan, "baserritarrak kalitatearen alde

egin behar du, eta hiltegi txikiak beharrezkoak dira horretarako". Europak ere okelaren kalitatea bultzatzen duela gaineratu du, eta Mankomunitateak kontrara diharduela. Honez gain, Mankomunitateak baserritarrak, harakinak eta kontsumitzaileak ez dituela kontuan hartu esan zuen, eta zera gaineratu zuen: "Ez digute behin ere gure iritzia eskatu".

*Baserritarrek eta harakinek hiltegia beharrezkoa dela diote, okelaren kalitatearen alde*

Zubillagako hiltegiari buruzko azken erabakia uztaile arte luzatzea erabaki zuen Mankomunitateak eguaztenean Elgetan egin zuen hileroko bileran. Orain, epe bat zabaldu du Mankomunitateak gai horretan murgilduta dauden alde guztien proposamenak aztertzeko, eta ibarreko udalei ere erabaki bat hartzeko eskatu die Mankomunitateak. Oraingoz, beraz, ez dago behin betiko erabakirik Zubillagako animalia hiltegiaren inguruan.

Jaurlaritzak, bestetik, publikoak diren hiltegi asko daudela esan du txosten batean, eta gaineratu du hori oztopoa dela okelaren sektorea profesionalizatzeko. Hamar hiltegi daude EAEn, eta horietatik zazpi udalena dira, tartean, Zubillagakoa.

## Garapen agentzien euskal elkartearen sartu da ibarreko Mankomunitatea

Agentzien arteko elkarlana trukatzeko da helburua, ekonomia indartzeko

JULEN IRIONDO

**Industriaz gain, zerbitzuak ere indartu nahi ditu Mankomunitateak, eta euskal garapen agentzian sartu da lan hori errazago egiteko. Tokiko 19 garapen agentziak osatzen dute elkarte, eta jardura ekonomikoa indartu nahi du.**

Debagoieneko Garapen Agentziaren helburua da modernizazio eta dibertsifikazio ekonomikoa sortzea. Horretarako, enpresa ekimenak bultzatu nahi ditu, herritarrak lanerako prestatu eta

euren laneratzea erraztu.

Debagoieneko agentzia horretan ari da lanean. Iaz, esaterako, 25 enpresa sortzen lagundu zuen. Jardura hau, ordea, industria arlora bideratu zen batez ere, eta Mankomunitateak nahi du aurrerantzean zerbitzuen esparrua gehiago landu; turismoa, merkataritza, ostalaritza eta kultura, besteak beste.

Garapen elkartearen sartzeak helburu hori lortzen lagunduko diola uste du Mankomunitateak, eta horregatik sinatu du akordioa. Elkartearen tokiko 19 agentziak osatzen dute, eta elkarren arteko

ezagutza eta esperientzia trukatzeko, jardura ekonomikoa indartzeko. Garapen elkarteak Euskal Autonomia Erkidegoko biztanleen %70 ordezkatzen duela esan dute arduradunek.

### PLAN ESTRATEGIKOAREN BARRUAN

Iaz egindako plan estrategikoaren arabera, hiru lan-esparru propio ditu Debagoieneko Mankomunitateak: ingurumena, lurralde antolamendua eta garapen agentzia. Azken esparru hau indartzeko pausoa egin du orain Mankomunitateak, erkidegoko garapen agentzien barruan sartuz.

## Aldundiak ez dio kasurik egin eskoriatzarren eskaerari

Autobideko aldaketei eutsi egin die Diputazioak

OIHANA ELORZA

**Eibar-Gasteiz autobidearen eraikitze proiektuan Diputazioak egin dituen aldaketak salatu ditu astean Eskoriatzako herritar talde batek Donostian. Diputazioak alegazioak aurkezteko epea 15 egun luzatu die, hitzez bakarrik.**

Eibar-Gasteiz ordainpeko autobidearen azken tratatuan Diputazioak egindako aldaketak salatu dituzte Eskoriatzako kaltetuen elkartekoei eta Udal ordezkariak, astean Donostian egin duten prentsaurreko batean.

Taldeak garbi utzi zuen ez dagoela autobia honen aurka, baina bai ibilbidean Diputazioak

egin dituen funtsezko azken aldaketan aurka, eta aldaketa horiek salatu ditu, taldearen ustez, bada-go-eta horrenbeste kalte egin barik ordainpeko autobide hori egiteko modua. Aldaketa hauek ikaragarriko eragin kaltegarria izango dutela azpimarratu zuten, bai herrian eta baita auzoetan ere. Hori kontuan hartuta, ingurumenaren beste ebaluaketa bat egiteko eskatu diote Diputazioari. Hark, ordea, aldaketei eutsi egingo diela esan die.

Proiektuari alegazioak aurkezteko orduan oztopoak izan dituztela ere salatu zuen taldeak. Diputazioko ordezkariekin hitz egin zuten, eta alegazio epea 15 egun luzatuko diela esan zieten, baina hitzez bakarrik.



ARGAZKI PRESS

Eskoriatzako kaltetuek eta Udal ordezkariak Donostian eman zuten prentsaurrekoa.

**FAGOR**

FAGOR AUTOMATION, KOOP. E.  
BATZAR OROKOR ARRUNTA

### DEIALDIA

EGUNA: 2004ko maiatzaren 7an (ostirala).  
ORDUA: 14:30ean lehen deialdian eta 15:00etan bigarrenean.  
TOKIA: Aita Menni ospitaleko batzarren aretoan (Santa Ageda).

### EGUNEKO AZTERGAIK

- 1.- Akten onepenari buruzko txostena eta akordioa.
- 2.- Memoriaren irakurketa eta onarpena.
  - 2.1 - 2003ko gestioari buruzko akordioa.
  - 2.2 - 2004ko Gestio Planaren onarpena.
- 3.- Sektorekako Elkarketa eta Fagor Taldeari buruzko txostenak.
- 4.- 2003ko Kontuen eta Balantzearen azterketa.
- 5.- 2003ko Emaizen Banaketa.
- 6.- Erregimen Ekonomikoari buruzko xedapen estatutarioak.
- 7.- Entitateen gaiak.
  - 7.1 - MCC korporazioaren eta DIBE dibisioaren informazioa.
- 8.- Greba Arautegia.
- 9.- Kanpo Auditoreen izendapenaren berrestea.
- 10.- 2005eko Batzar Orokor Arrunta.
- 11.- Kontseilu Errektorearen Berritzea.
- 12.- Kontseilu Sozialaren Berritzea.
- 13.- Fagorko Batzar Orokorreko ordezkarien hautapena.
- 14.- Eskariak eta Galderak.

Arrasaten, 2004ko apirilaren 20an

Aitor Irure  
Kontseilu Errektoreko Lehendakaria

# Lastertasun Handiko Trena geldiarazteko eskatu dute Bruselan

Gizartearen zati handi bat proiektuaren aurka dagoela esan dute, ozen

OIHANA ELORZA

**AHT Gelditu! Elkarlana taldeko 35 kide Bruselan egon dira. Europako Batasunari zuzenean eman diote informazioa, eta eskatu diote AHT egitasmoa geldiarazteko. Bilerak eta prentsaurrekoa egin dituzte. Debagoienetik ere joan dira.**

Lastertasun Handiko Trenaren egitasmoa geldiarazteko eskatu dio Europako Batasunari AHT Gelditu! Elkarlana plataformak.

Plataformako 35 kide inguru Bruselan egon dira astean, euskal gizartearen zati handi bat egitasmoaren aurka dagoela erakusten eta proiektua gelditzeko eskatzen. Bidaian, Mila Elortza Angiozar-ko alkateak eta Iñigo Iñurrategi Bergarako Aralar-ko zinegotziak hartu dute parte, besteak beste. Iñigo Iñurrategiren esanetan, "egitasmoaren inguruko informazioa zuzenean eman diogu Europari". Gasteizko eta Madril-



Plataformak tinko jarraitzen du AHT proiektuaren kontra.

go gobernuak zabalduko desinformazioa ere salatu dute.

Bruselan, Europako garraio eta ingurumen ordezkariekin bilera egin dituzte, eta ekaineko

hauteskundearen ostean harremanak jarraitzekotan gelditu dira. Bestalde, Europak bi gobernuetara proiektua justifikatzeko txostenak eskatuko diela esan die.

## EUROPAKO HAUTESKUNDEAK

### HZ: Herritarren Zerrenda osatzeko 40.000 sinadura

Ekainaren 13ko Europako hauteskundeetara aurkeztu ahal izateko, Batasunaren inguruko aukerak 40.000 sinadura batu nahi ditu Euskal Herri osoan. Hegoaldean maiatzaren 8ra arte eta Iparraldean 15era arte. Debagoienetik ere herriz herri batu dituzte, udaletxeetan, eta herri batzuetan notariotzan ere bai. Euskal Herria nazio gisa aurkezteko egitasmoa da HZ.

### EAJ eta EA beste batzuekin eta Aralar bakarrik, oraingoz

Galeusca-n, CIU eta BNGrekin eta Espainiako Estatuako beste alderdi nazionalista batzuekin batera aurkeztuko da EAJ. Hain zuzen, CIUkoa izango da zerrendaburua. EA, ostera, ERC eta Chunta Aragonesistarekin aurkeztuko da, eta honek ere zerrendaburu katalana izango du. Aralar, bestalde, bakarrik aurkeztuko da Euskal Herria Bai izenarekin, Patxi Zabaleta zerrendaburu duela.

### Mayor Oreja izango da PPko zerrendaburua

Jaime Mayor Oreja, Legebiltzar-erako azken hauteskundeetan lehendakari izateko PPko hautagaia izan zena, Europako hauteskundeetarako aurkeztuko dute popularrek. Erabaki honek izan dezake eraginik Erkidego-ko PPkoengan. Izan ere, Mayor Oreja da Euskadiko PPkoen oherrezko presidentea. Haren ordezkotza izateko, Loyola de Palacioren izena da gehien entzun dena.



### Hitzarmena, garapen iraunkorraren alde

Jaurlaritzak eta ibarreko udalek lankidetzak hitzarmena sinatu zuten astelehenean Arrasateko udaletxean, Udaltalde 21 Debagoiena proiektua eratu eta aurrera eramateko. IHOBE elkarte publikoak, Gipuzkoako Diputazioak, Debagoieneko Mankomunitateak eta ibarreko udalek hartuko dute parte egitasmoan. Helburua da garapen iraunkorrerako bidean elkarrekin aurrera egitea. Sabin Intxaurre sailburuak eta Debagoieneko alkateak sinatu zuten hitzarmena. /E.A.

# Iparraldea bertan

Apirilaren 21etik

Maiatzaren 2ra arte

## Debagoienean



ANTOLATZAILEA: DEBAGOIENENKO MANKOMUNITATEA

Apirila

21etik  
aurrera

OÑATI

Kultura etxean "Kantuketan" erakusketa. (Erakusketa maiatzaren 2ra arte zabalik egongo da) Orduetgia: 18:30 - 20:30

30ean:  
22:30

ESKORIATZA

Kiroldegian Erramun Martikorenaren kontzertua. Sarrera: 5 euro.

Maiatza

1ean:  
22:00

ANTZUOLA

Udal Areto Nagusian Anje Duhalderen kontzertua. Sarrera: 5 euro.



Laguntzailea:



Babesleak:

Goienkaria  
Goiena Telebista

## OÑATI

**Boluntarioak elkartzeko dei egin du Pake Leku elkarteak**

Pake Leku elkarteak deituta, dagoeneko 19 lagun elkartu dira boluntario lanetan jarduteko. Laguntza behar duten herritarrei konpainia egiteko dauden boluntarioak dira: behar duenari maitasuna, adiskidetasuna eta laguntza emateko gertu dauden boluntarioak. Dagoeneko hasi dira informazioa eta prestaketa jasotzen, irailan ikastaro trinkoa egingo dute eta jaietan ostean hasiko dira lanean. Laguntza behar duenak eta laguntzeko gertu daudenak Pake Lekun bertan jasoko dute informazio osoa. /O.E



Z.V.M.

## ESKORIATZA

**Eguneko zentroa inauguratu zuten eguaztenean**

Nahiz eta martxoaren 8an ireki zituen ateak, eguaztenean, hilak 28, inauguratu zuten herriko eguneko zentroa. Besteak beste, Aita Menniko ordezkariak, Eskoriatzako alkate Juan Karlos Bengoa eta Foru Aldundiko ordezkari Ramon Jauregi izan ziren bertan. Hamabost pertsonarentzako tokia dago egoitzan, eta gaur egun hamar erabiltzaile ditu. Astelehenetik egubakoitzera bitartean irekitzen ditu ateak, eta gosaria, bazkaria eta askaria ematen zaie erabiltzaileei. Gainera, errehabilitazio fisikoa egiten dute, eskulanak, musikoterapia, ludoterapia... Laguntza-ekimenak era egokian egiteko, eguneko zentroko erabiltzaileak bi taldetan banatzen dira. Hala ere, bi taldeek antzerako ekintzak egiten dituzte, eta zailtasunaren arabera desberdintzen dira. /Z.V.M.

## ANTZUOLA

**Kalebarrenen eta Errekalden izango dituzte lokalak herriko gazteek**

Gaztetxoek, 12 eta 15 urte bitartekoek, Errekalden izango dute lokalak. 15 urteko gorakoek, berriz, Kalebarrenen. Horixe adostu dute Udalak, Txatxilipurdik, Antzuolako Gazte Asanbladako kideek eta gaztetxoek azkeneko hila-beteetan egin dituzten batzarretan.

Gaztetxoek begiraleak izango dituzte, eta elkarrekin aisiadirako ekintzak antolatuko dituzte.

Udaleko arduradunen esanetan, dena ondo badoa, hiruzpalau aste barru zabalduko dituzte bi lokalak. /AINTZANE IRIZAR

## ELGETA

**Dantzaren gaineko erakusketa egiteko argazkiak behar ditu Jai batzordeak**

Elgetako Jai batzordeak dantzaren gaineko erakusketa bat antolatzen dihardu. Erretratuez gain, jantziak, dantzarako tresnak... ipiniko dituzte ikusgai. Erakusketa herri mailakoa izango da, eta elgetarren parte-hartzea eskatu dute. Beraz, dantzarekin lotutako argazkiak dituztenei udaletxera, Kultura Sailera eramateko dei egin nahi diete. Erretratuarekin batera jabeak gogoratzten dituen datuak ere jasoko dira, eta erakusketa amaitzean bueltatu egingo zaizkio jabeari. /I.A.

## ARRASATE

**Ustillajes Uribesalgoren Arrasateko lantegian bi urterako lana lortu dute**

Badirudi, oraingoz, behintzat, Ustillajes Uribesalgoren Arrasateko produkzioa ez dutela Gasteizera eramango. Langileen batzordeko ordezkari Antton Axpek jakinarazi digunez, datozen bi urteotarako lana lortu dute Arrasateko lantegirako. Gauzak horrela, langileek bi urterako hitzarmena sinatu dute enpresarekin. Hori bai, hala ere, Arrasateko lantegiaren etorkizuna ez dela segurua esan digu langileen ordezkariak: "Bi urteotako lana bukatzen denean ikusi beharko da zer gertatzen den". Izan ere, orain dela hilabete batzuk enpresak jakinarazi zuten euren asmoa dela Arrasateko produkzioa Gasteizera eramatea.

## LANGILE GUTXIAGO

Era berean, Antton Axpek jakinarazi digu orain zazpi langile gutxiago direla Arrasateko lantegian. Langileen ordezkariak kontatu digu zazpi langileok Gas-

teizera joan direla; hiru euren kabuz. Beste lauren kasuan, berriz, ordezkapena egiteko kontratua zuten eta enpresak esan zien Arrasateko lana laster bukatuko zitzaiela. Hala, Gasteizen lekua eskaini eta hara joan ziren langileak. Edozelan ere, enpresak kalte-ordain moduan, 10.000 euro eta Arrasatekoa baino soldata hobea eskaini die langileei.

Kontuak kontu, orain, lehen baino langile gutxiago dira Arrasateko lantegian. Hasieran, 70 langile ziren; orain, 54. Izan ere, besteak beste, 18 langile kalera bota zituzten.

## Zertzelada

**Bi urterako lana lortu dutela-eta, enpresarekin hitzarmena sinatu dute; hala, oraingoz, behintzat, produkzioa ez dute Gasteizera eramango**

## BERGARA

**Mekolaldeko Narbaiza ehungintza lantegia itxi egingo dute**

Azken urteotako krisi egoerari aurre egin ezinik, Textil Narbaiza ehungintza enpresa ixtea erabaki dute. Textil Narbaizak bi lantegi zituen, bata Gasteizen eta bestea Bergaran, Mekolalden. Bergarako lantegian 71 lagun ziren lanean eta Gasteizen, berriz, 32 langilek ziharduten. 2001. urteko iraila ezkerro enpresa hon-

dotik ateratzeko ahalegina egin dute zuzendaritzak eta sindikatuek. Hala ere, egoera larria bizi izan du enpresak eta azken sei hilabeteotan egoera jasanezina bilakatu da.

Hori dela eta, enpresa ixtea erabaki dute. Langileen kontratuak bertan behera uzteko eskaera egin dute dagoeneko. /E.M.



EDU MENDIBIL

Argazkian, Textil Narbaizako Bergarako lantegia.

## ARETXABALETA

**Hainbat ikastaroren itxiera ekitaldia egingo dute gaur Institutuan**

Gaur, egubakoitza, lanerako prestakuntzaren gainean egin dituzten hainbat ikastaroren itxiera ekitaldia egingo dute Aretxabaleto Institutuan. Erreminten Mekanizazioa eta Fabrikazioa, Geriatria Laguntzailea, eta Galdaketa eta Erreminten teknikaria gaiak landu dituzte 30en bat ikaslek, eta gaur diplomak banatuko dizkiete. Itxiera ekitaldian izango dira Pablo Txintxurreta Aretxabaleto Institutuko zuzendaria, Aretxabaleta eta Eskoriatzako alkateak eta Eusko Jaurlaritzako Lan Saileko teknikaria. /M.A.

## ARAMAIO

**Bañera Kirol Elkarteak zuzendaritzak utzi egingo du jarduna**

Aramaioko areto futbol taldeez arduratzen den Bañera Kirol Elkartearen etorkizuna zalantzan dago. Elkarteak zuzendari Alfonso del Campok eta Josu Bideburuk jakinarazi dute aurten utzi egingo dutela taldea, nekatuta daudela. Horren ondorioz, beste inork ez badu Bañeraren gidaritzak hartzen, elkartea desagertu egingo da. Espe-ro dute maiatzaren 31 baino lehen norbaitek hartzea ardura hori.

Hamahiru urtean ibili da Bañera Kirol Elkarte Aramaioko areto futbol taldeez arduratzen. /U.M.

## GATZAGA

**Apirilean ez da Osoko Bilkurarik egingo Gatzagako udaletxean**

Hilabete bakoitzeko egue-netan egiten dute Leintz Gatzagan osoko bilkura. Edozelan ere, apirileko bilera atzeratu egin dute, zenbait arazorengatik. Horregatik, datorren hilabetean egingo dute hurrengo batzarra. Nahiz eta bilkura egiteko Udaleko langileek adierazi dutenaren arabera ez da derrigorrezkoa. Hala, horregatik, ez dute atzeratzeko arazorik izan. Hala ere, ez dute egunik finkatu. Zehaztu ez duten beste kontu bat da bilkuran jorratuko duten gai-zerrendarena. /Z.V.M.

**D**iktadura garaian, ETA erakundearen borroka nolakoa zen azaltzen duen erakusketa zabaldu du Xabier Zumalde *El Cabra*-k Artean. Itxi egin duten arren, bihar, zapatua, 12:00etan erakusketa zabaldu egingo duela esan digu.

OIHANA ELORZA

**Batzuek itxi egin nahi dute, zuk zabalik egon behar duela diozu. Zer dago erakusketa horretan? Nolakoa da?**

Hasteko, erakusketa hau ez dago ez ekomuseoan, ez parke tematikoan. Erakusketak jartzeko propio egindako etxetxo batean baizik.

Erakusketa Francoren diktaduraren inguruko erakusketa didaktiko bat da, garai hartako egoera bakarrik jasotzen du, eta ETA erakundearen borroka nolakoa zen azaltzen du, 1964tik 1968ra, salbuespen egoera etorri zen arte. ETako lehen buruzagi militarra izan nintzen ni, eta nire gerrillaren historia jasotzen du erakusketa honek, besterik ez.

**Nolakoa da historia hori?**

60ko hamarkadan, Francoren diktaduran, ETAk gerrilla talde bat sortzea eta antolatzea agindu zidan, Euskal Herriaren matxinada prestatzeko. Eta horrelaxe egin nuen. Errepresio garaia zen hura, eta ni neu eta nire gizonak, beste euskaldun asko bezala, torturatu egin gintuzten.

Erakusketa honek orduko argazkiak, dokumentuak eta agiriak biltzen ditu, diktaduraren aurkako ETaren borroka erakusten dutenak. Torturak egon zirela frogatzen dute argazki askok. Garai hartako material didaktikoa jasotzen du erakusketak: Ikurrinak nola egiten ziren eta kableen azpian nola jartzen ziren, eskuorriak nola banatzen ziren, dokumentuak nola faltsifikatzen genituen, kode sekretuak erabiliz nola komunikatzen ginen preso hartutako lagunekin...

Salbuespen egoera heldu zenean, mendira egin genuen ihes, eta han sabotajeak egiten zituen gerrilla bat eratu genuen. Ez zen, ordea, gerrilla odoltsua. Guardia Zibiletik ihesi, zulo batzuk egin genituen mendian; hantxe egiten genuen jan eta lo. Zulo hori nolakoa zen ere ikusten da erakusketan, baina gu gordetzeko egin genituen zuloak ziren, ez bahitutako pertsonak gordetzen eta torturatzen genituen zuloak, batzuek esan duten moduan.

**Jaurlaritzak ere itxi egin behar dela esan du. Historiari beldurra dio?**

Harritu egin nau Jaurlaritzaren jarre-rak. *Euskaldunon Egunkaria*-ren auzian, Alderdi Popularraren aurka hitz egin zuen. Orain, berriz, EAJ da erakusketa ixteko agindu duena, erakusketan dagoena ikusi nahi ez duelako. Bere alde borrokatu genuen Ertzaintza bera bidali du guztiz didaktikoa den erakusketa ixtera. Nik denak gonbidatu ditut erakusketara, eta zerbaitek norbaiti min egiten badio, kendu egingo dudala esan diet.

**Javier Baltza barne sailburuak marketin kontua dela esan du.**

Horrela ere uler daiteke, nahi izanez gero. Ia 20 urte daramatzat baserriaren, ekologiarren, arrantzaren, geologiaren eta gazteriaren inguruko erakusketak egiten. Hau beste bat da, eta egia esan, gus-tatzen zait nitaz hitz egitea eta horren hari-ria liburuak saltzea.

**Trilogia bateko lehen liburua da kaleratu duzun azkena, ezta?**

Bai. Liburu honek ETaren borroka



SABINA IGARTUA

## Xabier Zumalde

ETAREN LEHEN BURUZAGI MILITARRA

**“Ez Francok, ez Guardia Zibilak ez ninduten isilarazi; EAJk ere ez nau isilaraziko”**

**ARTEAN ZABALDU DUEN ERAKUSKETA  
“ETako lehen buruzagi militarra izan nintzen ni,  
eta nire gerrillaren historia jasotzen duen erakusketa  
didaktiko bat da, besterik ez”**

**KOMANDOAK ERATZEKO ZAILTASUNAK OÑATIN  
“Franco hil zenean, denak bihurtu ziren abertzale,  
baina diktadurako garai gogorretan oso herri koldarra zen,  
oso zaila zen militanteak lortzea”**

klandestina nolakoa zen kontaktzen du. Bigarrenak 1968tik Francoren heriotza artekoa jasotzen du, amnistia artekoa. Irailean kaleratuko da liburu hau eta gogor-rragoa izango da. PSOEko mertzenarioen kontuak ekarriko ditu, eta noski, beste erakusketa bat antolatuko dut. Ez diktadurak, ez Guardia Zibilak eta ezta Francok ere ez ninduten isildu, eta EAJk ere ez du hori lortuko. Hirugarren liburuak kontaktzen du, 1981ko estatu kolpea zela-eta, Eusko Jaur-laritzak laguntzeko deitu zidanekoa. *Ama-*

*lur operazioa*-ren sorrera, Garaikoetxea lehendakariaren telefonoarekin egindako *txapuza* eta hori guztia.

**Ertzaintza sortzeko eta prestatzeko, zuri deitu zizun EAJk.**

*Txikia*, Txomin Iturbe, *Argala* eta beste askoren maisu militarra izan nintzen; nik erakutsi nien armak eta lehegailuak erabiltzen, mugak pasatzen, kodeak irakurtzen, manualak egiten eta beste. Amnistia izan zenean, borrokan jarraitzeko eskatu zidan ETak, baina lehen hauteskundeak

heldu zirenean, armak utzi nituen. Ez dut inoiz arazorik izan ETarekin.

70eko hamarkada bukaeran, 1979an, Jaurlaritzak laguntza eskatu zidan. Alboan utzitako armak eman nizkion, autodefentsarako. Tejeroren ostean, bigarren estatu golpe baten beldur zen gobernu, eta *Amalur operazioa* prestatzeko eskatu zidan. 24 orduan, gobernu, legebiltzarra eta kultura arloko batzuk ebakutzeko plana zen hura. Horrekin batera, baldin eta gobernu erbestera joaten bazen, hura babestuko zuen talde armatua sortzeko eskatu zidan. Eta horrelaxe egin nuen. Lan asko egin genuen, oroitzen onak ditut ordukoak. Baina EAJk azpijokoa egin zidan. Niri ezer esan gabe, gizon guztiak eta arma guztiak kendu egin zizkidan, lehenengo Berrozien taldea sortzeko.

**Orduan haserretu zinen EAJrekin?**

Jenaro Garcia Andoain laguna eta biok EAJren barrua aztertzen hasi ginen, alderdiko, gobernu eta diputazioko jendearen kontu korranteak aztertzen. Alderdiak, orduan, inteligentzia eta informazio sistemak deuseztatu zituen, eta kaleratu egin ninduen.

**Zenbat lagun egin, galdu eta gorde dituzu zure ibilbidean zehar?**

Adiskidetasuna nahiko abstraktua da nire ustez. Goian zaudenean, denak dituzu lagunak, baina alderantziz denean, inork ez zaitu ezagutzen. Horixe gertatu zait niri gobernuarekin. Klandestinitatean, gerrillan ibili ginenon arteko harremana, aldiz, ezberdina da. Harreman onak ditut ordukoekin eta haien oinordekoekin.

**Oñatin oraindik oroitzen dira ihes egin zenuenean, 2CV autoa alderantziz aparkatu zenuelako konturatu zela Guardia Zibila auto barruan zerbait utzi zenuela.**

Gerrillaren historiak dira horiek. *Braulio* zuen izena bi zaldiko hark. Ihes egin zenuenean, material ugari utzi nuen auto barruan eginda nuen tranpa batean, ez zidan banatzeko denborarik eman eta Guardia Zibilaren kuartel zaharraren parean aparkatu nuen autoa, Kale Zaharrean. Mendira egin nuen ihes, eta irrati bidez, taldeko mutilekin hitz egitea lortu nuen, eta auto barruan zegoena handik ateratzeko esan nien. Gauean, autoa handik hartu zuten mutilek, gordeta zegoena atera, eta berriro utzi zuten lehengo tokian, baina alderantzizko noranzkoan aparkatuta. Eta orduan konturatu zen Guardia Zibila han zerbait gordeta egon zela.

**Nolakoa zen Oñati garai hartan, 60ko hamarkadan?**

Fantasia rock taldean gitarra elektrikoa jotzen eron bat nintzen egunez, baina gauetan, mendira joaten nintzen gerrillak egitera. Oso zaila zen militanteak aurkitzea, karlista asko zeuden Oñatin. Franco hil zenean, denak bihurtu ziren abertzale, baina diktadurako garai gogor haietan, oso herri miserablea zen. Are miserableagoa zen oraindik, erbestetik etorri nintzenez. Ez armak hartu, ez paretak margotu ezta Ikurrinak jarri ere nahi ez zutenak pegatinekin eta Ikurrinaren ondoan ikusi nituen. Eli Galdoskin batera herriko kaleetan paseatzen ari nintzela, listua nola bota zidaten ikusi nuen, eta aurkako pintadak ikusi nituen. Oñati oso herri koldarra izan da beti. Oñatiko lotura on bakarra Sabina da, nire emaztea.

**Eta, laguna duzu oraindik Eli Galdos?**

Ez naiz inoiz haserretu Eli Galdoskin, eta ez naiz inoiz haserretuko. Sasoi hartan, asko lagundu zidan Elik, asko jarri zuen jokoan nire alde, eta beti eskertuko diot hori. Zerbaitegatik dena ematen duena heroia da niretzat, eta Eli Galdos ezagutu dudana gizon ausartenetako bat da, nire ustez.

## BALDINTZAK

Asteleheneko Goienkaria-ren harpidedun direnek **bakarrik** parte hartu ahal izango dute zozketan.

Baldintza bakarra da **harpidedun** izatea .

Maiatzaren 17an hasiko dira zozketak.

Ostiraleko Goienkarian eta Asteleheneko Goienkarian, aurreko astean saridun izan direnen zerrenda argitaratuko da.

ASTELEHENEKO  
**Goienkaria**  
astelehenean, aste bukaera osoa




902 36 38 51

Astelehenetik ostiralera  
Ordutegia: 9:00etatik 21:

# Asteleheneko Goienkaria-ren astero-astero





Asteleheneko Goienkaria-ren harpidedun guztien artean astero-astero sariak zozketatuko ditugu.

## Zorte on!



## sarrerak

Kultura, aisialdi eta kirol ekintzetarako sarrerak.





00ra

# Harpidedunen txokoa

harpidedunentzat

# oro sariak!



Inprimagailua



Argazki-kamera digitala.




Jokua



Eskanerra



Prismatikoa



Jokua



mikrouhin-labea



DVD-a

eta uztailean...

# adi!

**Astleheneko Goienkaria-ren harpidedun guztien artean bidai zoragarri bat zozketatuko dugu.**



Harpidedun egiteko:



**902 36 38 51**

Urte amaierara arteko harpidetza 20 €

## Gutunak

Ahalik eta iritzi gehienek izan dezaten tokia, ez da komeni makinazko 15 lerro baino luzeago idaztea gutun hauetan. Izena, telefonoa eta helbidea agertu beharko dira. Laburtu behar izanez gero, GOIENKARIAK bere esku du horretarako eskubidea.

Zure iritzia helarazteko:  
Barrenkalea 33, 20570 BERGARA  
Telefonoa: 943 76 92 71  
Faxa: 943 76 29 77  
Posta-e: goienkaria@goiena.com



## Presoek ere euskaraz bizitzeko eskubidea

Gaur, egubakoitza, apirilak 30, euskal presoak Euskal Herritarzearen alde Arrasateko plazan egingo den elkarretaratzea dela-eta, ARREPEko (Arrasateko Euskalgintza Plan Estrategikoa) talde guztien atxikimendua eskatu du Arrasateko Etxerat-ek.

Euskal Herriak behin baino gehiagotan erakutsi du presoak etxetik gertu nahi dituela, beraien eskubidea baita. Arrasaten ere desio hau kaleratzea da gure helburua, eta elkarretaratze anitz bat lortzeko beharrezkotzat jotzen dugu herriko talde eragile desberdinen parte-hartzea.

Azkenaldian, euskaldun izateagatik jasan ditugun erasoak ikaragarriak izan dira eta gainera inpunitate osoz bururikoak. Presoak beraien ziegatan bakarturik eta inkomunikaturik dauden heinean, bistakoa da inpunitatea areagotzen dela, eraso hauen oihartzuna minimoa delarik.

Urraturiko eskubide guztien artean (sakabanaketa, isolamendua, torturak...) hizkuntza erasoak ez dira kanpoan gelditzen: euskaraz ikasteko debekua; telefonoz euskaraz hitz egiteko eragozpenak gero eta gehiago dira (jadanik toki batzuetan debekatu dute); euskaraz bidalitako postak sarri ez dira heltzen eta heltzen direnak beti ere atzerapenarekin.

Sakabanaketaren helburuetako bat euskaraz bizitzen eragoztekoa da. Beraien herriarekin izan beharko luketen harreman naturala apurtu eta ondorioz pertsona bezala ezereztatzea.

Argi utzi nahi dugu politika hau salatzeak ez duela talde armatuari babesa ematearekin inolako zerikusirik, preso dauden giza-eskubideen aldarrikapen hutsa dela baizik. Dagoeneko zaz-

piehunetik gora preso politiko ditugu Euskal Herrian, nazio eraikuntzaren alor ezberdinetan lanean aritzeagatik zigortuak (Udalbiltza, Egin, Egunkaria, Askatasuna..., zein da hurrengoa?)

ARREPE osatzen duten talde guztietatik honako hauei eskerrak eman nahi dizkiegu elkarretaratze honetara atxikitzeagatik: EHE, EKIN emakumeak, Txatxilipurdi, AED, Erdu AEK euskaltegia, Euskalan, Mesedeetako Andramari ikastetxeko klaustroa eta Eskola Politeknikoa. Pausu honekin egoera hau salatzeak konpromisoa erakutsi baitute.

Bestalde, ARREPE osatzen duten eta atxekitu ez diren beste taldeei guzti honen inguruan hausnarketa sakon bat egiteko ordua ere badela ohartarazten diegu. Ordua da gure beldurrak alde batera utzi, denon indarrak batu eta zigor bidegabe honi amaiera emateko.

Ordua da gure beldurrak alde batera utzi, denon indarrak batu eta zigor bidegabe honi amaiera emateko.

Honen guztiagatik, gaur, apirilak 30, 19:30ean Herriko Plazan egingo den elkarretaratzean arrasatear guztien parte-hartzea eta konpromisoa eskatzen dugu. Aldez aurretik, eskerrak.

ARRASATEKO ETXERAT  
Arrasate

## Bergarako Mizpirualde egoitza

Bergarako Mizpirualde egoitzako langileok aditzera eman nahi diegu iritzi publikoari, erabiltzaile guztiei bereziki eta bergararrei orokorrean, zein den gure lan egoera eta bizi dugun blokeoa. Urtarrilean, Lending Service SL enpresari enpresa-hitzarmen baten plataformara aurkeztu zitzaion, gure lan jardunean baldintza duin minimo batzuk arautzen dituen. Mizpirualde Zaharren Egoitza Fundazio Publikoak kontratatutako enpresa da Lending Service SL, eta bertan, gobernu, administrazioa eta ordezkaritza gobernu-batzordeari dagozkio. Gobernu-batzordea osatzen dute Bergarako alkateak —beronen zuzendaria—, Udaleko Gobernazio, Ogasun eta Gizarte Ongizateko komisioen presidenteeak, eta zaharren, zaharren egoitzako eta familiartekoen ordezkaritza batek. Hainbat batzar izan ditugu enpresarekin eta enpresa pribatu hori kontratatu zuen alkatearekin berarekin, eta momentu honetan, negoziazioak blokeatuta daude; alde batetik, enpresak ez duelako bere gain hartu nahi Udala onartzeko gertu ez dagoen kostu estrarrik; eta bestetik, Bergarako alkateak dioelako Lending Service enpresako langileen aldarrikapenek ez dutela zerikusirik berak alkate bezala duen erantzukizunarekin. Zera

jakinarazi nahi dugu: 1-Gaur egungo beharrei erantzuteko ez daukagula pertsonal nahikorik, eta batzuetan ezin izaten dugula gure lana ondo bete. Plantilla minimoa daukagu, eta horrela ezin diegu aurre egin egoitzako erabiltzaileek dituzten beharrei. 2-Udalak bermatu egin behar diela pertsona nagusiei arreta hobea. Ea horretarako lanaldi osoko jarduna edo langile gehiago behar dira, lana baldintza duin minimoekin egin ahal izateko. 3-Gure soldatek eta baldintza sozialek ez dutela zerikusirik gobernu-batzordeak pertsonal propio bezala dituen 17 langileenarekin, zeintzuei aplikatzen zaien administrazio lokal eta foraleko pertsonal dependentearen hitzarmena. 4-Lending Service SL enpresak kontratatutako 54 pertsonen dagokienez, nahiz eta etxeko pertsonalak egiten duen lan bera egin, irabazten dutela 6.100 euro gutxiago urtean (lehenengo milioi bat pezeta) klinika laguntzaileen eta harreragileen kasuan, 4.800 euro gutxiago (800.000 pezeta) sukaldarien kasuan, eta 2.700 euro gutxiago (450.000) garbitzaileen kasuan. Orduetegi deserosoenak izan eta egun txarretan lan egin behar izateaz gain (126 ordu urtean), behartuta daude pertsonal propioaren bajak eta oporrak betetzera eta, era berean, aste bukaera eta jaiegun guztietan lan egitera, jakinda domekei eta jaiegunei dagokien plusa miseria hutsa dela. Hortaz, lan bera egiteagatik zergatik dira lan baldintzak ezberdinak? Horregatik guztiagatik, egoera honekin kezkatuta eta lan diskriminazioekin bukatzeko eta asistentzia-kalitatea hobetzeko asmoz, egoki ikusi dugu gure egoera aditzera ematea eta jendaurrean ipintzea. Horren harira, aurrerantzean hainbat ekintza egingo ditugu, eta, hala, erabiltzaileei eta herriari orokorrean eskatzen diegu kolaborazioa, gure aldarrikapenak ulertzea eta haiekin bat egitea: lan baldintza duinen alde lanean; diskriminazioari ez.

MIZPIRUALDE ZAHARREN EGOITZAKO  
LENDING SERVICE-KO LANGILEAK  
Bergara

## Antzuolako gauzak

Hiru hilabete dira Antzuolako alkateak, Txabarri jauna ahaldu nagusia alboan, handinahiko proiektu bat azaldu zigunetik. Finantziarioa Izartu 2004 egitarautik eta etxebizitzaren salmenta espekulatibotik sortutako etekinean oinarritzen zen. Aipatzen dugun proiektuaren muina, frontoia bota eta solairu horretan etxebizitzak eraiki, saldu eta etekinekin kiroldegia egitea zen.

Pasatu dira hiru hilabete, eta orain esaten digute Izartu 2004 egitarauak ez dituela kiroldegiak egiteko laguntzarik

aurrez ikusten.

Gauzak horrela, tori beste proiektu bat, aurrekoa bezain handinahikoa, eztabaidagarria gainera, legalitateari begira gure ustetan. Alkateak, onartu duenez, proiektua bere kabuz erabakitakoa izan da, Udaleko beste kideekin eztabaidatu gabe, hau da, inoren iritziarekin kontatu gabe.

Eraikinak 6 solairu izango ditu, 2 solairu garajeetarako eta ekipamendu soziokulturalerako eta, gainean, 4 solairutan, 60 etxebizitza. Alde bat lehengo Maristen eraikinaren gainean egingo litzateke eta bestea, "kanpo gorriaren" gainean.

Batasunaren iritzi maila horretako proiektuak ezin daitezke hain arin onartu, proiektuak herri osoari eragiten baitio. Batez ere, Beheko Auzoari, Eguzki Auzoari eta bertan biziko direnei. Bi auzoek duten solas gunearen zati bat jango baitio eraikin honek eta "kanpo gorriak" ematen dituen prestazioei alternatibarik eman gabe.

Ze herri mota nahi dugun eztabaidatu beharra geroz eta nabariagoa da, Batasunaren iritzi, denon, Udalaren eta herritarren parte hartzea izango duen eztabaida. Gure herriaren etorkizuna garrantzitsuegia delako kontratista eta espekulatzaileen esku lagatzeko. Bihar beranduegi izan daiteke.

ANTZUOLAKO BATASUNA  
Antzuola

## Lanuztea

Goiena Komunikazio Zerbitzuak Kooperatiba Elkarteko langileek bat egin zuten eguaztenerako, Lan Osasun eta Segurtasuneko Nazioarteko Egunerako, ELA, LAB, ESK eta EILAS sindikatuak egindako deiarekin. Hain justu ere, sindikatu horiek ordu erdiko lanuztea egiteko dei egin zuten enpresetan. Lanuzte hori deitu zuten salatzeak, besteak beste, iaz 150 pertsona hi zirela laneko ezbeharreran Euskal Herrian.

GOIENAKO LANGILEAK

**Goienkaria**  
DEBAGOIENENKO ASTEKARIA

ZUZENDARIA  
Eneko Azkarate  
ERREDAKZIO KONTSEILUA  
Edorta Mendieta,  
Miguel Angel Elkoroberebar,  
Josemari Velez de Mendizabal

ADMINISTRAZIOA  
Agurtzane Gaintzarain,  
Iratxe Bengoa, Arantazu Arana  
SAILETAKO ARDURADUNAK  
Iñaki Iturbe (Diseinua)  
Gotzon Arzelus (Publizitatea)

PUBLIZITATEA  
Mireia Larrañaga, Natali Martínez,  
Izaskun Bolinaga, Ziortza Martín,  
Imanol Elortza, Amaia Mundiñano  
PRODUKZIOA  
Iban Arantxabal

TESTUEN ZUZENKETA  
Sergio Azkarate  
HARPIDETZA ETA BANAKETA  
Marta Leturia

**Goiena**  
Komunikazio Zerbitzuak  
LEHENDAKARIA  
Estepan Plazaola  
ZUZENDARI NAGUSIA  
Iñazio Arregi



## Debagoieneko Euskal Eskola Publikoa

### GOIESKOLA



instituto  
**IPINTZA**  
institutua

• **Batxilergoak**

- Natura eta osasun zientziak
- Giza eta gizarte zientziak
- Teknologia



arrasate  
aretxabaleta  
I N S T I T U T U A

• **Batxilergoak (D eta A ereduetan)**

- Natura eta osasun zientziak
- Giza eta gizarte zientziak
- Teknologia
- Artea (modalitate berria), D eredu



• **Heziketa zikloak**

*Goi mailakoak (A ereduan):*

- Metal eraikuntzak
- Galdaketa eta pulbimetalurgia bidezko produkzioa

*Erdi mailakoak (D ereduan):*

- Mekanizazioa
- Soldadura eta galdaragintza
- Kontsumorako ekipo elektronikoak
- Elektromekanika
- Erizaintzako zaintza osagarriak

**Batzar informatiboa/ate irekiak**

**Maiatzaren 4an, 18:30ean**



zuazola-larraña  
**Oñatiko b.h. institutua**

• **Batxilergoak**

- Natura eta osasun zientziak
- Giza eta gizarte zientziak
- Teknologia



• **Heziketa zikloak**

*Erdi mailakoak*

- Mekanizazioa
- Makineria eta linea eroanbide en instalazioa eta mantentze-lan elektromekanikoa.
- Natura ingurumenean gorputz eta kirol ekintzak gidatzea



# BATXILERGORAKO AURREMATRIKULAZIO EPEA ZABALIK

## Maiatzaren 3tik 10era

ARRASATE ARETXABALETA INSTITUTUA

IPINTZA INSTITUTUA BERGARA

R.M. ZUAZOLA-LARRAÑA OÑATI  
BH INSTITUTUA

**Batzar informatiboa / ate irekiak**

**Maiatzaren 4an, 18:30ean**

Helbidea:

Arrasate Aretxabaleta BHI

Santa Teresa 25

Tel.: 943 79 44 47 / 943 79 79 00

[www.goieskola.net/iarrasatearetxabaletabhi](http://www.goieskola.net/iarrasatearetxabaletabhi)

Helbidea:

Ipintza BHI

Boni Laskurain 19

Tel.: 943 76 31 42

[www.goieskola.net/ipintzabhi](http://www.goieskola.net/ipintzabhi)

Helbidea:

R.m. Zuazola-Larraña BHI

San Lorentzo auzoa z/g

Tel.: 943 78 21 50 / 943 78 12 08

[www.onati.net](http://www.onati.net)

Podiuma

# Juan Inazio Galdos | ZEGAMAKO ALKATEA |

OIHANA ELORZA

**M**unduko kopan sartzen da aurtengo Zegama-Aizkorri mendi maratoia, eta probaren eguna da aldaketa nagusia. Aurten, maiatzaren 23an egingo da. Ibilbidea bera da, eta prestaketa lanak aurreikusitako moduan doaz. Mundu osoko 300 korrikalarik hartuko dute parte.

## Munduko kopan sartzeak zer ekarri dizue antolatzaileei?

200 zegamar inguru ibiltzen dira musu-truk Zegama-Aizkorri mendi maratoia antolatzen, eta dozena erdi lagunek urte guztian dihardute antolakuntza hobetzeko lanetan. Munduko kopan sartzeak antolakuntza teknika zerbait egokitzea ekarri du, baina orain arte egindako lana sustrai eta oinarri bezala hartuta, betiere.

## Izena emateko epea zabalik dago, baina dagoeneko bete da zerrenda.

Une honetan horixe da dugun kezka nagusia. 300 korrikalarientzat zabaldu zen zerrenda. Nazioarteko federazioak hauen %30 erreserbatzen ditu atzerriar onenendako. Libre gelditzen diren 210 inskribapenak beteta daude, eta itxaron zerrendan 120 bat lagun daude. Antolatzaileok saiatzan ari gara federazioak ahalik eta azkarren jakinarazteko erabili behar duen kopurua, itxaron zerrendan daudenekin betetzeko. Bestalde, inskribapena 330era igotzea aztertzen ari gara. Asmoa garatzen bada, telefonoz deituko diegu itxaron zerrendan daudenei.

## Aldaketarik egongo da aurtengo maratoian?

Ez, ibilbidea bera izango da. Aurreko edizioetan parte-hartzaileei inkesta bat egin diegu euren iritzia jakiteko, eta ibilbidearekin gustura daudela esan digute. Beraz, dagoenetan uztea erabaki dugu.



Zegamako alkatea eta antolatzaile taldekoa da Juan Inazio Galdos.

## “Parte-hartzaileen zerrenda beteta dago jadanik, baina kopurua handitzea ari gara aztertzen”

### Zergatik sartu dute munduko kopan? Aurrerantzean ere zirkuitu horretan egongo da?

Gure abal garrantzitsuena parte-hartzaileak eta ikusleak dira. Noski, baita aurrez egiten den lan garrantzitsua ere. Zegama-Aizkorri mendi maratoia munduko kopan egotea erakunde eta lagun askoren lanari esker izan da, auzolanaren ondorioa dela esango nuke, ahaztu gabe proba egiten den paraje lilurgarri eta erakargarriak.

### Nazioarteko federazioak ez dio itzalik egin Aizkorriko Lagunak elkarteari?

Zegamarrok Aizkorriari begiratzen dugu egunero zein eguraldi egin behar duen jakiteko. Aizkorri maite dugu, eta hortik sortu genuen 2000. urtean Aizkorriko Lagunak Elkarte. Zegama eta Aizkorri gehiago uztartu nahi genituen, eta horregatik jarri genuen abian mendi maratoia. Nazioarteko federazioak gaurdaino eginiko lana ikusi du.

# Debagoieneko triatloia ekainaren 5ean egingo da

OIHANA ELORZA

Debagoieneko Antxintxika triatloi taldea buru-belarri ari da datorren ekainaren 5eko triatloia prestatzen. Zirkuituan ez da aldaketa handirik egongo. Lehenbizi, 1.500 metroko igeriketa proba egingo dute Urkulun, eta ondoren, 40 kilometro egingo dituzte bizikletan, eta azken 10 kilometroak, korrika, Arrasaten. Nobedade handiena igeriketa proban dago. Aurten bi triangulu txiki jarriko dituzte, bertaratzen den jendeak proba osoa ikusteko aukera izan dezan. Laster zabalduko da izenemate epea, eta edonork har dezake parte.



ANTXINTXIKA TRIATLOI TALDEA

lazgo probaren antzekoa izango da aurtengoa ere.



## FAGOR EDERLAN KOOP. E. 2004KO OHIKO BATZAR OROKORRA

Kontseilu Errektoreak elkartean Batzar Nagusia deitu du. Batzarra Arrasateko Amaia antzokian egingo da 2004ko maiatzaren 8an, goizeko 9,30etan lehen deialdian eta, hala behar balitz, bigarren 10etan, egun eta toki berean, EGUNEKO GAI ZERRENDAREN arabera:

### EGUNEKO GAI ZERRENDA

- 1.- Akten onespenera buruzko txostena eta akordioa.
- 2.- Memoriaren irakurketa eta onarpena.
  - 2.1 -2003ko gestioari buruzko akordioa.
  - 2.2 - 2004ko Gestio-Planaren onarpena.
- 3.- Mondragon Automocion CHP eta Fagor Taldeari buruzko txostenak.
- 4.- 2003ko Kontuen eta Balantzeen azterketa.
- 5.- 2003ko Emaizten banaketa.
- 6.- Erregimen ekonomikoari buruzko xedapen estatutarioak.
- 7.- Entitateen gaiak.
  - 7.1 - MCC.
  - 7.2 - Lan Kide Aurrezkia.
  - 7.3 - Lagun-Aro.
- 8.- Kontseilu Errektorearen komunikazioa.
- 9.- Auditoreak izendatzea.
- 10.- Zaintza batzordea berritzea.
- 11.- Fagorko Batzar Orokorreko ordezkarien hautaketa.
- 12.- Eskariak eta galderak.

Eskoriatza, 2004ko apirilak 19

KONTSEILU ERREKTOREKO IDAZKARIA

## Pentekoste Jaiak



# SALOU

AUTOBUS GABE AUTOBUSAREKIN

SAN FRANCISCO	92€	139,63€
15.308 Pta		23.232 Pta
LAS VEGAS	112€	159,63€
18.635 Pta		26.560 Pta
AUGUSTUS	115€	162,63€
19.134 Pta		27.059 Pta
PLAYA PARK	113€	160,63€
18.802 Pta		26.727 Pta
EUROPA PARK	119€	166,63€
19.800 Pta		27.725 Pta
OLYMPUS	120,51€	168,14€
20.051 Pta		27.976 Pta
MICHELANGELO	120,74€	168,37€
20.089 Pta		28.014 Pta

Luxuko bi autobus. Irteerak 17,00etan eta 20,00etan. Gidari laguntzailea. Asistentzia eta bidai aseguru. Egondaldia Maiatzak 28 Ekaianak 1era. Ume bat doan eta bigarrenak deskontua. Hirugarren eta laugarren pertsonendako deskontua.

INFORMAZIOA ETA ERRESERBA:  
943 76 26 76 - 943 76 12 67 (Idoia eta Karmentxu)

Viajes Eroski  
Bidaiak



Kalitatea  
Bermatuta



eskaintza gehiago [www.viajeseroski.es](http://www.viajeseroski.es)



# Goienka2a

Egubakoitza / 2003ko apirilaren 30a

Kultura  
eta  
aisialdia



Apirilaren 30etik  
maiatzaren 7ra

## TELLERIA BASERRIKO JAIA, EUSKAL ZERAMIKARIEN I. TOPAKETA ARRASATEN **ZERAMIKA TOPAKETAK**



**T**elleria izeneko teileria 2002ko ekainean aurkitu zuten izen bereko baserrian, Arrasateko Uribarri auzoan. Industria pabilioi batzuk eraikitzen hasi zirenean aurkitu zituzten garai bateko teileriaren hondakinak. Baina teileria osoaren multzotik teilak egosteko labea baino ez da kontserbatu. Hala ere, egoera bikainean dago. Aranzadi Zientzia Elkarteak aritu zen indusketa lanak egiten.

Uribarriko teileria hori XVIII. mendearen bigarren erdian ageri da dokumentatuta lehenengoz, 1779an. Dokumentu horietan jasotakoaren arabera, teileria

hogei urte lehenago ere bazegoen martxan eta Arrasateko Udalak zuen hura zaintzeko ardura.

Oraingoz, ez dakite teileriaren ekoizpen jardura noiz eten zen. Itxura guztien arabera, Espainiako gerra aurretik arte iraun zuen teileriak.

### TELLERIA BASERRIKO JAIA, ZERAMIKA TOPAKETAK

Aranzadi Zientzia Elkartearen txostena aztertu ostean, Arrasateko Udalak teileria babesteko eskatu zien industrialdeko arduradunei. Eta horrela egingo dute. Inguru horretako lanei hasiera ematen die-

tenean, labea birgaitu eta jendeak ikus dezan irekiko dute.

Aurkikuntza hori aitzakia hartuta, *Ceramikarte.com* argitalpen digitalak, beste hainbat entitate laguntzailerekin batera, Telleria Baserriko Jaia zeramika topaketak antolatzeari ekin zion. Gaur hasiko dira topaketak, Angeles Casas Aragoiko zeramikariaren erakusketarekin. Datorren astera arte beste hainbat erakusketa, tailer eta hitzaldi izango ditugu Arrasaten, garai bateko zeramika eta gaur egungoa bat eginda. /USOA AGIRRE /15



## Taldearen indarra.

Batxilergoak gizartean eta ondorengo ikasketetan behar bezala txertatzeko pertsonak garatzea eta gaitzea du helburutzat. Autogestioa, taldeko-lana eta erantzukizun partekatua dira gure oinarritzko balioak.

**aurrematrikula epea zabalik:**  
**maiatzaren 3tik 7ra.**

Informa zaitez!

902 11 20 25



**Arizmendi ikastola**

geurea, zeurea

[www.arizmendi.ikastola.net](http://www.arizmendi.ikastola.net)



## GARBIGUNEA

amaiera onena  
zabor bereziarentzat

GARBIGUNEAK hiri hondakinen gaikako bilketako **debaldeko** guneak dira. Garbiguneak erabiliz gero, **birziklapena** erreztuko duzu eta hondakinei amaierarik onena emango diezu.

### ORDUTEGIAK

**ASTELEHENETIK OSTIRALERA** 9:00etatik 12:30etara eta 16:00etatik 19:00etara. **LARUNBATAK** 9:00etatik 13:30etara. **ABUZTUA** •Arrasate: astelehen eta ostegunetan, 9:00etatik 13:30etara. •Bergara: astearte eta ostiraletan, 9:00etatik 13:30etara. •Oñati: asteazken eta larunbatetan, 9:00etatik 13:30etara.

JAI eta IGANDETAN Garbiguneak itxita egongo dira.

### zer biltzen da?

- |   |  |
|---|--|
| Sukaldeko olioak.   | Zurak.   |
| Kotxeko olioak (banakako erabilera).  | Ibilgailu EZ motordunen neumatikoak.                   |
| Bateria, metagailuak eta pilak.   | Pintura, disolbatzaileak eta garbikariak.              |
| Aerosol, pestizidak...  | Gauza metalikoak (erradiadoreak, bizikletak, aulkiak). |
| Eskonbruak (adreiluak, lurra, kristalak...).                                    | Paper eta kartoia.                                     |
| Material informatikoa (pantailak, tonerrak, disketerak, CDak, video zintak...). | Plastikoak.  |
| Elektrogailuak (mota guztietakoak).   | Radiografiak.  |
| Ke-detektagailuak.  | Sakeleko telefonoak.                                   |
|   | Termometroak.  |
|   | Beira.   |

### zer EZ utzi

- Ibilgailu motordunen neumatikoak.
- Tailer mekanikoetako olioak.
- Hondakin industrialak.




DEBAGOIENENKO MANKOMUNITATEA

#### Arrasate (Ibarreta)



#### Bergara (S. Kristobal)



#### Oñati (Urrutxu)



ARTISAUTZA/ EUSKAL ZERAMIKARIEN I. TOPAKETA ARRASATEN

# Eta... buztina arte bilakatu zen

TELLERIA BASERRIKO JAIA, EUSKAL ZERAMIKARIEN I. TOPAKETA EGINGO DA ARRASATEN GAUR HASI ETA MAIATZAREN 9RA BITARTEAN

USOA AGIRRE

**G**aur hasi eta maiatzaren 9a bitartean, Telleria Baserriko Jaia izeneko zeramikarien topaketa egingo da Arrasaten. Euskal zeramikarien I. topaketa izango da. Erakusketak, tailerrak, hitzaldiak eta beste hainbat ekintza antolatu dituzte, zeramika herritarrei hurbiltzeko.

Arrasateko Telleria baserrian aurkitu zuten 2002ko ekainean garai batean teilak egiteko erabiltzen zuten telleria. Arrasateko Uribarri auzoan egin zuten aurkikuntza, industria pabiloi batzuk eraikitzeke lanak egiten ari zirela. Aurkikuntza horren harira, *Ceramikarte.com* argitalpen digitaleko arduradunek Telleria Baserriko Jaia izeneko zeramika topaketak egitea pentsatu zuten. Euskal zeramikariez gain, kanpokoak ere izango ditugu Arrasaten; Aragoi, Errioxa eta Leongoak, besteak beste.

## LAU ERAKUSKETA

Gaur hasi eta maiatzaren 9a bitartean hainbat ekitaldi izango dira Arrasaten. Hasteko, erakusketa bat zabalduko dute gaur Harresi aretoa: Angeles Casas Aragoiko zeramikariaren azken bi urteotako lanak izango dira ikusgai bertan, maiatzaren 9ra arte. Erakusketa horrekin emango zaio hasiera Telleria Baserriko Jaia.

Erakusketekin jarraituz, EKG elkarteke kideen lanak izango dira ikusgai maiatzaren 6tik 16ra arte Monterron jauregian. Ara-

bako Jabier Berasategi, Koro Martinez, Loli Pinedo, Ramon Berraondo, Reyes Guillen eta Txaro Maraño, Bizkaiko Ana Jauregi eta Jose Saez, eta Gipuzkoako Ione Urain eta Maite Salutregiren zeramika piezak egongo dira Monterronen.

Maiatzaren 7tik 9a bitartean beste bi erakusketa egongo dira: Yanka Mikhailova Bielorrusiako zeramikariak bere lanak erakutsiko ditu Lasagabaster jantzi denda; Errioxako Masun Manero eta Leoneko Andres Osle zeramikariak Ormazabal barne arkitektura denda erakutsiko dituzte beraien lanak.

## TAILERRAK, HITZALDIA ETA DOKUMENTALA

Erakusketekin batera, beste hainbat ekintza ere izango dira hurrengo aste bukaeran. Maiatzaren 8an eta 9an Euskal Herriko eltzegileak lanean ikusi ahal izango dira Monterron parkean, eta horrez gain, umeendako zeramika eta buztzingintza tailerrak ere egongo dira. Maiatzaren 8an dokumental bat emango dute Monterron jauregian, *Rifeko azken emakume eltzegileak* izenburupean. Hurrengo egunean, maiatzaren 9an, Alfredo Morazak hitzaldia egingo du Monterron jauregian; Uribarri auzoan aurkitutako telleria izango da hitzaldiaren gaia.

Gauza berezirik ere egongo da; Japoniako Raku teknika zaharra erabiliz piezak egosiko dituzte Arrasateko plazan. XVI. mendean sortu zen teknika hori Korean eta zen pentsamoldearekin lotura handia du.



Umeendako tailerrak egongo dira Monterronen.

## Egitaraua

### ERAKUSKETAK

**Maiatzak 30etik 9ra**

Harresi aretoa

ANGELES CASAS (ARAGOI)

**Maiatzak 6tik 16ra**

Monterron Jauregia

EUSKAL KERAMIKAGILE GARAIKIDEAK

**Maiatzak 7tik 9a**

Lasagabaster jantzi denda

YANKA MIKHAILOVA (BIELORRUSIA)

**Maiatzak 7tik 9a**

Ormazabal barne arkitektura denda

ANDRES OSLE (LEON) ETA MASUN

MANERO (ERRIOXA)

### ERAKUSTALDIAK

**Maiatzak 7 eta 8**

Herriko plaza / 17:00

RAKU EGITEKO LABEAREN ERAIKUNTZA

**Maiatzak 8 eta 9**

Monterron parkea

EUSKADIKO ELTZEGILEAK

**Maiatzak 8 eta 9**

Monterron parkea

UMEENDAKO ZERAMIKA TAILERRAK

**Maiatzak 8**

Herriko plaza / 22:30

"RAKU GAUA": PIEZEN EGOSKETA

RAKU JAPONIAKO TEKNIKA ZAHARRA

ERABILIZ

### DOKUMENTAL EMANALDIA

**Maiatzak 8**

Monterron jauregia / 19:30

"RIFEO AZKEN EMAKUME ELTZEGILEAK"

### HITZALDIA

**Maiatzak 9**

Monterron jauregia / 12:30

"URIBARRIKO TELLERIA". HIZLARIA:

ALFREDO MORAZA

## Euskal zeramikariak

**E**uskal Keramikagile Garaikideak (EKG) izeneko plataforma 2002ko urte amaieran sortu zuten, EAEko gaur egungo zeramika suspertzeke asmoarekin. Plataforma osatzen dute euskal zeramikariak, Gasteizko Arte Eskolak, Arte eta Langintzen Eskolak eta *Ceramikarte.com* argitalpen digitalak.

Plataformaren helburu nagusia da gaur egungo

zeramikak leku propioa izatea euskal kulturaren, eta horretarako inguru egokia sortu nahi dute Euskadin.

Arrasaten erakusketa egingo dute EKGko zeramikariak; Araba, Bizkaia eta Gipuzkoako zeramikariak etorriko dira. Tailerrak ere antolatu dituzte; maiatzaren 8an eta 9an umeendako zeramika eta buztzingintza tailerrak egongo dira Monterronen.

## ANGELES CASAS / ZERAMIKARIA

# "Oraingo zeramika eskulturatik oso gertu dago"

**B**artzelonakoa da jaiotzez Angeles, baina Zaragozan bizi da gaur egun. Urteak daramatza zeramika lantzen, eta hainbat sari jaso ditu. Erakusketak ere asko egin ditu, bakarka nahiz taldeka. Gaurtik aurrera, Arrasateko Harresi aretoan erakutsiko du azken bi urteotan egin duen lana.

**Zer erakutsi behar duzu Arrasaten?**

Egiten ari naizen azken lana erakutsiko dut. 2002tik orain arte egin ditudan piezak erakutsiko ditut.

**Zer berezitasun du zure zeramikak?**

Orain egiten ari naizenak duen berezitasunik handiena da mugimendua duten piezak direla. Ez iradokitako mugimendua, baizik eta mugimendu erreala. Kulunkatu egiten dira, jirabiraka ibiltzen dira... Artikulatuak ere badaude batzuk. Lehen, pieza bertikalagoak egiten nituen.

**Defini daiteke gaur egungo zeramika?**

Nahiko zaila da definizioa egitea. Egia esatearren, gaur egungo zeramika eskulturatik gertuago dago berez zeramikatzen hartzen denetik baino. Baina eskulturagileei ez zaie askorik gustatzen guk hori esatea.

**Lehen, zeramikako piezek bazuten erabilgarritasuna;**

**orain, dekoraziorako baino ez dira erabiltzen.**

Gizarteak berak aldarazi du hori. Lehen, zeramikazko piezak erabiltzen ziren janaria prestatzeko, baina material berriak sortu diren heinean, hori guztia galdu egin da. Baxerako piezak ere modu industrialagoan egiten dira orain.

**Zer da zeramika, artea ala artisautza?**

Hori da betiko dilema. Artisautza, nire ustez, lehen eginda zeuden piezen birsorkuntza da, eskuz eginda, betiere. Kafe kikkara batzuk egiten badituzte artisautza egiten ari naiz; baina egin ditzaket kafe kikara artistikoki batzuk, diseinu batekin, eta hori



Angeles Casas.

arte da. Gauza hauetan oso zaila da mugak jartzea. Gaur egungo zeramikan espresioa asko lantzen ari da, eta material berriak ere ari dira lantzen. Emaitza zirraragarriagoak eta erakargarriagoak lortu nahi dira oraingo zeramikan.

**Gaur egungo gazteek badute zeramikarako zaletasunik?**

Geroz eta jende gutxiago hasten da orain zeramika ikasten. Arrasateko bezalako ekitaldietan elkartzen garenean zeramikariok, beti berdinak elkartzen garela konturatzen gara. Jende berri gutxi sartzen da mundu honetan. Duela 15 bat urte zeramikariaren boom bat egon zen, baina orain gelditu egin da hori.

# Api. 30-Mai. 7

Leire Kortabarria / Zuen ekitaldien berri iragarri ahal izateko bidali informazioa eguazteneko eguerdiko 12:00ak baino lehenago • Posta elektronikoa: [kultura@goiena.com](mailto:kultura@goiena.com) • Tel.: 943 76 03 97 • Faxa: 943 76 29 77

## MATRIKULAK

### BERGARA

► **Musika eskolak** matrikulazio epea zabaldu du, adin guztietako ikasleendako. Horretarako, jo euren bulegora, 15:30etik 19:30era bitartean.

► **Batxilergoko aurrematrikulazio epea** zabalik egongo da Ipintza institutuan datorren aste osoan zehar. Argibideetarako, deitu 943 76 31 42 telefono zenbakira.

## DEIAK

### ARAMAIO

► **El jardín de la alegría** filma eskainiko dute gaur, egubakoitza, kultura etxean, 22:30ean. Euro bat da.

### ARRASATE

► **Presoen hizkuntza eskubideak** aldarrikatzeko agerraldia deitu du Etxerat taldeak gaurko, egubakoitza, Herriko Plazan, 19:30ean.

► **Kontrainformazioaren aldeko eguna** deitu dute AGAKOK eta *Ekintza Zuzena* aldizkariak gaurko, egubakoitza. Aldizkari horrek zenbaki berria aurkeztuko du, gaztetxean, 18:00etan.

► **Emakumeen aurkako indarkeria gaitzesteko** kale bilkura deitu du Emakume Txokoak astelehenerako, hilak 3, Herriko Plazan, 19:30ean.

► **Urruti daudenetatik gertuago** hitzaldia egongo da eguaztenean, hilak 5, San Andres parrokiako lokaletan, 19:30ean.

► **Bizimodurako bide alternatibak** mahai ingurua antolatu du Arizmendi ikastolak martitzenerako, Monterronen, 19:00etan, garapen jasangarriaren astearren barne.

### BERGARA

► **Bandoleroak Euskal Herrian duela 200 urte** hitzaldia egingo du Mikel Alberdi adituak martitzenean, hilak 4, Migel Altunan, 19:30ean.

### DEBAGOIENA

► **Ilargi eklipsea** egongo da maiatzaren 4an, martitzena. Ilartargi Astronomia Taldeak irteera antolatu du hori ikusteko. Bergarako ertzainen etxearen aurrean batuko dira 20:15ean.

### ELGETA

► **Plazatik gaztetxera bertsolaritza txapelketa** izango da egunotan. Lehen emanaldia gaur izango da, egubakoitza, gaztetxean, 22:00etan.

### ESKORATZA

► **Lourdesera erromesaldia** deitu dute maiatzaren 21etik 24ra bitartean. Interesa duzuenok jo Osasunaren Komisio Pastoralera edo Viteri dendara.

► **Bioeraikuntza** hitzaldia antolatu du Arizmendi ikastolak eguazteneko, kultura etxean, 18:30ean, garapen jasangarriaren astearren barne.

### OÑATI

► **Fatimara irteera** antolatu dute Arantzazuko frantziskotarrek maiatzaren 18tik 22rako. Argibideetarako, jo aita Fermin Altuberengana (Bidaurretan) edo aita Jon Zubietarengana (Arantzazun), edo deitu 943 78 09 51 telefono zenbakira.

► **Laixanen lokal berria** inauguratuko dute gaur, egubakoitza. Bidebarrieta kaleko 18an dago. Luntxa eta hainbat ekintza egongo dira.

► **Bizi testamentua** delako hitzaldia antolatu du Arrasateko artzapezpikutzak astelehenerako, hilak 3, Parrokiako lokaletan, 19:00etan.

► **Erretzeari uzteko ikastaroa**

antolatu du Udal Gizarte Zerbitzu sailak, eta horren aurkezpen hitzaldia izango da martitzenean, maiatzak 4, kultura etxean, 18:30ean. Maria Angeles Becerro mediku eta terapeutak egingo du.

► **Sexualitatearen eta afektibitatearen** gaineko solasaldia izango dute DBHko ikasleek eta gurasoek Rafael Godoy sexologoarekin. Elkar Heziren Santa Marinako egoitzan izango da, mediatekan, hain zuzen ere, martitzenean, hilak 4, 19:00etan.

## MUSIKA

### ANTZUOLA

► **Anje Duhalderen** kontzertua izango da bihar, zapatua, Udal Osoko Bilkura aretoan, 22:00etan, Iparraldea Bertan egitasmoaren barne. 5 euro da.

### ARRASATE

► **Arrasate Musikaleko txistulariek** kontzertua eskainiko dute etzi, domeka, eskolan, 12:30ean.

### BERGARA

► **The Modernist, Undersounds, NKO eta Kaiet** musikarien emanaldia izango da gaur, egubakoitza, Go-Jam aretoan, 00:00etan. Sarrera eta edaria 12 euro izango dira.

► **Señor No, Cool Panic eta Invencible Talbot** taldeen emanaldia izango da gaur, egubakoitza, gaztetxean, 22:30ean.

► **Doctor Deseo** talde bilbotarrak lan berria aurkeztuko du bihar, zapatua, Jam aretoan, 22:00etan. 15 euro da sarrera, 12 euro aldeztatik erosten bada.

### ESKORATZA

► **Erramun Martikorenak** kontzertua eskainiko du gaur, egubakoitza, kiroldegian, 22:30ean, Iparraldea Bertan egitasmoaren eskutik. 5 euro da.

## ERAKUSKETAK

### ARRASATE

► **Euskal Zeramikagileen I. Topaketaren barne**, honako erakusketak bisitatzeko aukera dago egunotan: hilaren 9ra arte, Angeles Casasen lanak, Harresi aretoan; eta eguenetik hasi eta maiatzaren 16ra arte, *Euskal Keramikagile Garaikideak* delako erakusketa izango da zabalik Monterronen. Datorren astean, ekintza gehiago egongo dira topaketa hauen eskutik.

► **Baratze kritikoa** delako erakusketa antolatu du Arizmendi ikastolak hilaren 3rako eta 4rako, astelehena eta martitzena, Monterronen, 18:00etatik 20:00etara. Arizmendik antolatutako garapen jasangarriaren inguruko kultura astearren barne dago ekitaldia.



### ► OSPAKIZUNAK

## ESTATU OSOKO MOTOZALEEK OÑATI HARTUKO DUTE BIHAR

Estatuko ehunetik gora BMW motozaleek Oñati bisitatu dute bihar, zapatua. Estatuko BMW Moto Klubak XIX. topaketa egingo du, eta Gipuzkoa aukeratu dute horretarako; hainbat leku interesgarri bisitatu dituzte, Oñati tartean. Hainbat ekitaldi egingo dituzte gurean; euren ibilgailuetan gure kaleak zeharkatzeaz gain, motoak eurak hobeto ikusteko parada izango dugu, eguerdian denetarik 60 bat motoren erakusketa zabalduko da eta Foruen plazan, goiz osorako. BMW-zaleei ongi etorri ofiziala egingo zaie udaletxean, 12:30ean. 13:00etan, Unibertsitatera eta Parrokiara bisita gidatuak egingo dituzte, eta Arantzazun bazkalduko dute. Han ere hainbat motoren erakusketa izango da. 16:00etan, Loiolara joango dira.

**Non:** Oñatin. **Noiz:** Bihar, zapatua. **Ordua:** 12:30etik 16:00etara izango dira Oñatin; erakusketa goizean izango da.



## COPRECI, KOOP. ELK. 2004KO OHIKO BATZAR OROKORRA

Kontseilu Errektoreak elkartearen Ohiko Batzar Nagusia deitu du. Batzarra Arrasateko Amaia antzokian egingo da, 2004ko maiatzaren 7an. Arratsaldeko hiruretan lehen deialdia eta, hala behar balitz, hiru eta erdietan bigarena, egun eta toki berean, hurrengo EGUNEKO GAI ZERRENDAREN arabera:

### GAI ZERRENDA

- 1.- Akten onespenerari buruzko txostena eta akordioa.
- 2.- Memoriaren irakurketa eta onspena.
  - 2.1.- 2003ko gestioari buruzko akordioa.
  - 2.2.- 2004ko Gestio Planaren onspena.
- 3.- Componentes Agrupazioa eta Fagor Taldeari buruzko txostenak.
- 4.- 2003ko Kontuen eta Balantzeen azterketa.
- 5.- 2003ko Emaizten banaketa.
- 6.- Erregimen ekonomikoari buruzko xedapen estatutarioak
- 7.- Entitateen gaiak
  - 7.1.- MCC
  - 7.2.- Euskadiko Kutxa
  - 7.3.- Lagun-Aro
- 8.- Kanpoko auditoreak izendatu
- 9.- Zaintza Batzordea berritzea.
- 10.- Fagorko Batzar Orokorreko eta Componentes Agrupaziorako ordezkarien hautapena
- 11.- Galde-erantzunak.

2004ko apirilaren 20an

KONTSEILU ERREKTOREKO IDAZKARIA





## 'KANTUKETAN': ETXAHUN IRURITIK SU TA GAR-ERA ARTE

*Iparraldea bertan* kultura hamabostaldia ikusmin handia piztu du Debagoienean, eta, harrera polit horrekin, agur esango digu laster. Baina hainbat ekitaldi gozatzeko aukera dugu oraindik egunotan. Tartean, *Kantuketan* euskal kantagintzaren inguruko erakusketaz, Oñatiko kultura etxean. Domekara arte dago zabalik, 18:30etik 20:30era bitartean. Etxahun Iruri eta euskal artzainen kantuetatik Su Ta Gar edo Anariren lanetara doan ibilbidea egiten du.

► **Emakumeak eta inmigrazioa** izeneko erakusketa dago zabalik datorren aste osoan. SOS Arrazakeriak antolatu du. Emakume Txokoan duzue bisitatzeko parada, 17:00etatik 20:00etara bitartean.

### OÑATI

► **Fotomatoian ateratako argazkien** erakusketa du zabalik Xabier Ubeda argazkilariak etzira arte, gaztelekan, 17:30etik 20:30era.

## OSPAKIZUNAK

### BERGARA

► **Elorregi auzoan** San Prudentzio jaiak ospatuko dituzte bihar eta etzi. Bihar, zapatua, 14:00etan, auzo bazkaria izango dute; 22:00etan, erromeria. Etzi, domeka, 10:30ean, meza izango da; segidan, dantzarien emanaldia, pilota jokoak eta musika.

### ESKORIATZA

► **Aitzorrotz eguna** antolatu dute etzirako, domeka, Atxorrotz GKEK, Arizmendik eta kultura etxeak. Honako egitaraua izango dute: 09:00etan, diana; 09:30ean, Aitzorrotzera igoera; 11:30ean, meza, trikiti eta bertso emanaldiak, eta bazkaria. 17:00etan herrira itzuliko dira, eta 18:00etan dantzaldia izango da Herriko Plazan.

## ANTZERKIA

### ARETXABALETA

► **Hitzak patriketan** antzezlanak izango da egunean, hilak 6, Kurtzebarri eskolan, 17:00etan. 3 eta 8 urte bitarteko umei zuzenduta dago.

## IKASTAROKAK

### ARRASATE

► **Estresa zelan kontrolatu** ikasteko jardunaldiak antolatu ditu ICTE Hirugarren Adineko institutuak eta Gizartekintzak, arlo horretako langile-entzako. Argibideetarako, deitu 943 77 16 99 edo 943 77 17 15 telefonoetara.

## LEHIAKETAK

### DEBAGOIENA

► **V. Ekintzaile lehiaketa** deitu du Kutxak, teknologia berrien erabilera hobea ahalbidetuko duten proiektuendako. Gipuzkoan bizi den edozeinek parte har dezake. Interneteko [www.begira.com](http://www.begira.com) helbidean dituzue argibideak. 40.000 euroko lehen sari bat banatuko dute, besteak beste.

# Zinema

### ARRASATE

#### ■ AMAIA ANTZOKIA

**Y entonces llegó ella**  
Zapatua eta domeka: 19:00, 22:00.  
Astelehena: 20:30.

**Escuela de rock**  
Domeka: 17:00.

**Vias cruzadas**  
Egubakoitza, hilak 30, zinekluba: 20:30.  
Astelehena, ikuslearen eguna.

### BERGARA

#### ■ NOVEDADES

**Océanos de fuego (Hidalgo)**  
Egubakoitza: 22:30.  
Zapatua: 17:00, 19:30, 22:30.  
Domeka: 17:00, 19:30, 22:15.  
Astelehena: 19:30.

#### El regreso

Eguena, zinekluba: 20:00.  
Astelehena, ikuslearen eguna.

### OÑATI

#### ■ OÑATIKO ZINEMA

**Glup**  
Zapatua eta domeka: 17:00.

**Scary movie 3**  
Egubakoitza: 22:30.  
Zapatua eta domeka: 19:30, 22:30.  
Astelehena: 19:30.  
Astelehena, ikuslearen eguna.

### EIBAR

#### ■ UNZAGA

**La ventana secreta**  
Egubakoitza: 19:30, 22:15.  
Zapatua eta domeka: 17:00, 19:30, 22:15.  
Astelehena, martitzena eta eguaztena: 19:30, 22:15.  
Eguaztena, ikuslearen eguna.

#### ■ RIALTO

**El secreto de los McCann**  
Egubakoitza: 19:30, 22:15.  
Zapatua eta domeka: 19:30, 22:15.  
Astelehena eta martitzena: 19:30, 22:15. 18:30, 20:30.

**Scoby doo 2**  
Zapatua eta domeka: 17:00.  
Martitzena, ikuslearen eguna.

### GASTEIZ

#### ■ GURIDI

**50 primeras citas**  
Egunero: 17:30, 20:00, 22:30.

**Los ríos de color púrpura 2**  
Egubakoitzetik eguaztena: 17:30, 20:00, 22:30.

**El efecto mariposa**  
Egunero: 17:30, 20:00, 22:30.

**La pasión de Cristo**  
Egubakoitzetik eguaztena: 17:30, 20:00, 22:30.

**El séptimo día**  
Egunero: 17:20, 20:00, 22:30.

**El enviado**  
Egunero: 17:30, 20:00, 22:30.

**La ventana secreta**  
Egubakoitzetik martitzena: 17:30, 20:00, 22:30.

#### ■ MIKELDI ZINEMAK

**Starsky y Hutch**  
17:30.

**Mystic river**  
17:15, 20:00, 22:30.

**Lost in translation**  
17:30, 20:15, 22:45.

**Peter Pan: la gran aventura**  
17:15.

**21 gramos**  
17:15, 20:00, 22:30.

**Océanos de fuego (Hidalgo)**  
19:50, 22:35.

**Los ríos de color púrpura 2**  
20:00, 22:30.

**Imagining Argentina**  
20:00, 22:30.

**Cuando menos te lo esperas**  
17:15, 20:00, 22:30.

**Hermano oso**  
17:20.

**Scary movie 3**  
17:30, 20:15, 22:45.

Martitzena eta eguena, ikuslearen eguna.

#### ■ FLORIDA-GURIDI

**Amar al límite**  
Egunero: 17:30, 22:30.

**A contrarreloj**  
Egunero: 17:30, 20:00, 22:30.

**Cooler**  
Egunero: 20:00.

**Nubes de verano**  
Egunero: 17:30, 20:00, 22:30.

**Cleopatra**  
Egunero: 17:30, 20:00, 22:30.

**El precio de la verdad**  
Egubakoitzetik astelehena: 20:00, 22:30.

**Intermission (J.B.A.)**  
Egunero: 17:30, 20:00, 22:30.

**El año del diluvio**  
Egunero: 17:30, 20:00, 22:30.

**Hermano oso**  
Egubakoitzetik martitzena: 17:30.

#### ■ ABACO-LAKUA ZINEMAK

**Hermano oso**  
16:00, 17:45.

**A contrarreloj**  
16:45, 19:30, 22:15, 00:30.

**La pasión de Cristo**  
17:00, 19:30, 22:00, 00:45.

**50 primeras citas**  
16:00, 18:00, 20:10, 22:40, 01:00.

**Scoby doo 2**  
16:20, 18:20.

**Océanos de fuego (Hidalgo)**  
19:30, 22:20, 01:00.

**The cooler**  
16:45, 19:20, 22:30, 00:45.

**Cypher**  
16:10, 18:20, 20:15, 22:30, 00:45.

**Scary movie 3**  
16:15, 18:15, 20:15, 22:15, 00:30.

**Starsky y Hutch**  
16:00, 18:00, 20:10, 22:15, 00:30.

**Gothika**  
20:10, 22:25, 00:45.

Gauerdiko saioak, egubakoitzean eta zapatuan. Eguaztena, ikuslearen eguna.

#### ■ YELMO CINEPLEX-GORBEIA

**50 primeras citas**  
12:15, 16:15, 18:15, 20:15, 22:15, 00:15.

**Amanecer de los muertos**  
12:15, 16:30, 18:30, 20:30, 22:30, 00:30.

**Scary movie 3**  
12:15, 16:10, 18:10, 20:10.

**El enviado**  
12:15, 16:00, 18:00, 20:00, 22:00, 00:00.

**A contrarreloj**  
12:15, 16:00, 18:10, 20:20, 22:30, 00:40.

**El efecto mariposa**  
12:15, 15:45, 18:00, 20:15, 22:30, 00:45.

**La mirada violeta**  
12:15, 16:05, 18:10, 20:15, 22:20, 00:24.

**Hermano oso**  
12:15, 16:05, 18:05.

**Peter Pan: la gran aventura**  
12:15, 16:20, 18:20.

**Y entonces llegó ella**  
20:20, 22:20, 00:20.

**La ventana secreta**  
12:15, 16:45, 18:45, 20:45, 22:45, 00:45.

**Los ríos de color púrpura 2**  
12:15, 16:40, 18:40, 20:40, 22:40, 00:40.

**El gato**  
12:15, 15:55.

**Big fish**  
20:05, 22:25, 00:50.

**Starsky y Hutch**  
12:15, 16:35, 18:35, 20:35, 22:35, 00:35.

**Vidas ajenas**  
22:10, 00:10.

**El secreto de los McCann**  
18:05, 20:20, 22:40, 00:55.

**La pasión de Cristo**  
20:00, 22:30, 01:00.

**Scoby doo 2**  
12:15, 16:25, 18:25.

Gauerdiko saioak, egubakoitzean eta zapatuan. Eguerdiko saioak, domekan. Astelehena, ikuslearen eguna.

#### ■ ÁBACO BOULEVARD

**El enviado**  
12:10, 16:10, 18:20, 20:30, 22:40, 01:00.

**La mala educación**  
20:00, 22:30, 00:45.

**50 primeras citas**  
12:15, 16:00, 18:15, 20:30, 22:45, 01:00.

**Hermano oso**  
12:00, 16:00, 17:45.

**Amanecer de los muertos**  
12:15, 17:30, 19:45, 22:00, 00:40.

**La pasión de Cristo**  
12:00, 17:00, 19:45, 22:30, 01:00.

**El efecto mariposa**  
12:10, 17:00, 19:30, 22:00, 00:30.

**Starsky y Hutch**  
12:15, 17:15, 19:30, 22:20, 00:30.

**La ventana secreta**  
12:10, 17:15, 19:30, 22:15, 00:30.

**El chico de tu vida**  
12:00, 16:10, 18:15, 20:30, 22:45, 01:00.

**El secreto de los McCann**  
20:00, 22:20, 00:45.

**Scary movie 3**  
12:15, 16:10, 18:10, 20:10, 22:20, 00:45.

**Océanos de fuego (Hidalgo)**  
19:30, 22:20, 01:00.

**Scoby doo 2**  
12:20, 16:00, 18:00.

Gauerdiko saioak, egubakoitzean eta zapatuan. Eguerdiko saioak, bakarrik domekan. Eguaztena, ikuslearen eguna.

*La mala educación: ●●●● | Peter Pan, la gran aventura: ●●●● | 21 gramos: ●●●● | La pasión de Cristo: ●●● | Cold mountain: ●●● | Kill Bill: ●●● |*

ESKASA: ● BALEKOA: ●● ONA: ●●● OSO ONA: ●●●● BIKAINA: ●●●●●

## KRITIKA

### EL SÉPTIMO DÍA

PUNTUAZIOA: ●●●


**ZUZENDARIA:** Carlos Saura.

**AKTOREAK:** Victoria Abril, Yohana Cabo, José Luis Gómez.

**B**atuzetan zinematik irteten garen, nahiz eta filma ondo dagoela iruditu, sumatzen dugu honi zerbaite falta izan zaiola ikuslea guztiz asetzeko. Bada, hori da Carlos Sauraren *El séptimo día* pelikularekin gertatzen dena. Filma duela urte batzuk Puerto Hurracoen izandako sarraskira hurbiltzen da, eta horretarako, narra-

tzaille gisa erabiltzen du gatazkan sartuta dagoen familia bateko neskatila. Saura gertakizun beltzetara eta pertsonaien gorrotara eta erotasunera gerturatzeko baina ez du gehiegi zehaztu edo argitu nahi tragediara eramaten gaituzten gertakizunen izaera. Neska bat, ia ezkontzeko zegoela, utzi egingo ei du senargaiak. Funtsezkoa dirudien gertakizun hori gertatutakoa gehiegi argitzen ez duten eszena gutxitan kontaktatzen da. Esamesek eta zurrumurruek zehaztu gabeko egia sortzen dute; bada-kigu nola pertsonaia bakoitzak gertatutakoa barneratu duen, baina ez dakigu zehatz-mehatz gertatutakoaren egia.

Saurak eta Ray Loriga gidoilariak istorioari buruz hartutako jarrera baliagarritzat kontsidera daiteke, gertaeren datu objektiboak bigarren mailan utz daitezke eta garrantzi handiago eman



herrian nagusitu den giro eta atmosfera zapaltzaileari. Dena den, arazo bat sortzen da, ikusleak minutu batzuk behar ditu istorioan kokatzeko, gero berehala pertsonaia gehienak guztiz zehaztuak geratzen dira (neskatila protago-

nistaren istorioa salbu, baina, tamalez, honek duen amodio istorioak ez du indar askorik), eta hortik aurrera ez dira dramatikoki aberasten istorioaren barnean. Horrela, kontaktatzen zaigun guztia denbora laburragoan kontaktatzea posible zen sententzia sortzen da. Hau dela-eta, istorioari intentsitatea falta zaio, baina filmaren bukaerak badauka intentsitatea. Bukaerako sarraskia benetan zirraragarria da eta iruditan oso ondo adierazita dago: ez du kamera geldorik erabiltzen, ezta beharrezkoak ez diren azpimarratuak ere. Dena, oso musika egokiaz lagundua, lehortasun eta laburtasunez ematen da: bizirik egotetik hilda egotera une baten ematen den pauso horrek arnasarik gabe uzten gaitu eta filmaren balioa asko igotzen du.

ANTONIO ZABALA

**INMO f3**  
SARE inmobiliaria

Erdiko kalea 26  
ARRASATE  
943 79 12 79

**SALGAI**

**ARRASATE**

- Apartamentua salgai erdialdean. Bi logela, egongela, sukalde eta bainugela. 21 m<sup>2</sup>ko garaje itxiarekin. Eguzkitsua.
- Etxebizitza salgai erdialdean. 50m<sup>2</sup>, bi logela, sukalde, bainugela bi eta egongela tximiniarekin. Erabat berrituta. 35m<sup>2</sup>ko terraza.
- Zigorrolan 45 m<sup>2</sup>ko etxebizitza salgai. Bi logela, sukalde, egongela eta bainugela. Bizitzera sartzeko moduan. 28.000.000 PTA / 168.283,39.
- Santa Teresa auzoan 59 m<sup>2</sup>ko etxebizitza salgai. Bi logela, sukalde, egongela eta bainugela. Erdi berrituta. Eguzkitsua. 31.000.000 PTA / 186.313,75 euro.
- Erdialdean 78 m<sup>2</sup>ko etxebizitza salgai. Hiru logela, sukalde, egongela eta bainugela. Balkoi handia. Eguzkitsua.
- Uriburu kalean 85 m<sup>2</sup>ko etxebizitza salgai. Hiru logela, egongela, sukalde eta bainugela. 6m<sup>2</sup>ko sotoa. Bizitzera sartzeko moduan. Dena kanpoalderra, eguzkitsua.

**ARETXABALETA**

- Lau urteko etxebizitza salgai, 110 m<sup>2</sup>. Hiru logela, sukalde, egongela eta bainugela bi. Terraza ederra. Eguzkitsua. 21 m<sup>2</sup>ko garaje itxia.
- 85 m<sup>2</sup>ko etxebizitza. Hiru logela, sukalde, egongela handia eta bainugela bi. Dena kanpoalderra eta berrituta. Ganbara dauka. 46.000.000PTA / 276.465,56 euro.

## 1/ ETXEBIZITZAK

### 101. SALDU

**Aretxabaleta.** Etxebizitza salgai. 80m<sup>2</sup>. Hiru logela, egongela. Gas naturaleko berogailua. Bizitzera sartzeko gertu. Deitu 17:00ak eta 21:00ak artean. 617 58 45 22.

**Arrasate.** Etxebizitza salgai berrituta eta altzariekin. Eguzkitsua. Kanpora begira. 165.278 euro. 686 89 98 84.

**Arrasate.** Etxebizitza salgai Erquin auzoan. Sukalde, egongela, komun bat, bi logela eta balkoia ditu. 647 29 93 44.

**Arrasate.** Etxebizitza salgai Ferrerriaren. Bi logela, egongela eta bainugela. Gas naturaleko berogailua. Berehala bizitzeko moduan dago. 666 27 67 93.

**Arrasate.** Etxebizitza salgai Otalora kalean. 12 urteko eraikina. 80 m<sup>2</sup>. 3 gela, egongela eta bi komun. Igogailua. Ganbara. 295.000 euro. 690 18 11 80.

**Bergara.** Etxebizitza salgai erdialdean. 158 m<sup>2</sup>. Berria. 659 44 76 75.

**Bergara.** Etxebizitza salgai Zubiaren. Oso eguzkitsua da. Hiru logela, egongela, eta bainugela. 646 03 24 93.

**Bergara.** Etxebizitza salgai. Bi logela, ganbara eta berogailua. Erabat berrituta, eta altzariekin. Prezio interesgarria. 943 53 26 90 edo 605 76 44 31.

**Donostia.** Atikoa salgai Antiguano. 629 53 40 94.

**Elgeta.** Etxebizitza salgai. Bigarren solairua. Igogailua. 645 71 76 25 edo 946 81 71 97.

### 102. EROSI

**Bergara.** Etxebizitza erosi nuke. 605 73 37 39.

### 103. ERRENTAN EMAN

**Almeria.** Abuztuan, hondartzaren aurrean apartamentua errentan. Bi logela. 950 30 33 35 edo 649 03 47 20.

**Apartamentua** errentan Laredon (Kantabria) uztailean eta abuztuan. 943 79 81 38.

**Arrasate.** Etxebizitza errentan ematen da Udalpe kalean, Erquin auzoan. 943 79 67 43 edo 630 27 46 09.

**Benidorm.** Apartamentua errentan. Hondartzatik gertu. Guztiz jantzia. Igerilekua, telebista eta aparkalekua ditu. 630 41 84 65.

**Benidorm.** Hondartzatik oso gertu dagoen apartamentua. Igerilekua eta garajea ditu. 945 29 33 80 edo 659 31 06 29.

**Costa Sancti Petri-Chiclana (Cadiz).** Bi apartamentu errentan uztailean, abuztuan eta irailean. Urbanizazio berria. Hondartzatik oso-oso gertu. 616 14 65 54 edo 678 78 39 10.

**Eskoriatza.** Etxebizitza errentan. 943 71 48 36.

# Iragarki sailkatuak

943 76 92 71 edo [sailkatuak@goiena.com](mailto:sailkatuak@goiena.com)

**BERGARA**

**TABERNAN LAN EGITEKO ZERBITZARIA BEHAR DA. 636 61 01 55**

Ibarra 3 • BERGARA  
Tel. / Faxa: 943 76 97 97  
Santi Kutz 8 • LEGAZPI  
Tel.: 943 73 05 25

**ETXEBIZITZAK SALGAI**

**Bergara:**

- Martzial Agirre 83 m<sup>2</sup>. Garajea. Ganbara. Terraza. Ondo zainduta dago.
- Koldo Elizalde 90 m<sup>2</sup>. Ondo.
- Zabalotegi 60 m<sup>2</sup>. Eguzkitsua.
- Bolu 75 m<sup>2</sup>. Egoera onean.
- Zubiaren 68 m<sup>2</sup>. Ganbara 20 m<sup>2</sup>.
- Alkabieta 88m<sup>2</sup>. Terraza 58m<sup>2</sup>.
- Matxiategi 63 m<sup>2</sup>. Ondo.

**Antzuola:**

- Hamaika etxebizitza eraikin berria. Ondo kokatuta. Garajea aukeran.

**PABILIOIA SALGAI**

**Bergara:**

- 660 m<sup>2</sup>. Hornituta.

**Eskoriatza.** Logelak ematen dira errentan. 943 71 48 36.

**La Pineda (Salou).** Apartamentua alokatzen dut. 4-5 lagunendako lekua. Igerilekua, aparkalekua. 943 79 45 74.

**Peñíscola.** Apartamentua errentan ematen da. Guztiz jantzia. Igerilekua eta garajea. Hondartzatik oso gertu. 945 29 33 80 edo 659 31 06 29.

**Peñíscola.** Apartamentua errentan uztailean eta abuztuan. Hondartzatik gertu. 943 79 48 82.

### 104. ERRENTAN HARTU

**Arrasate.** Bikote batek (senar-emazteak) etxebizitza hartuko luke errentan. 626 53 56 30.

**Bergara.** Etxebizitza bat hartuko nuke errentan. 656 76 97 75.

**Bergara.** Familia batek etxebizitza hartuko luke errentan. 661 08 43 13.

**Debagoiena.** Etxebizitza hartu nahi nuke errentan. Merkea. 943 53 21 82.

**BERGARA**

**TABERNAN LAN EGITEKO ZERBITZARIA BEHAR DA. 636 61 01 55**

### 105. ETXEA OSATU

**Bergara.** Lagun bat behar da etxea osatzeko. 666 74 40 33.

**Bergara.** Beste lagun batzuekin batera, etxea errentan hartu nahiko nuke. 660 92 01 32.

## 2/ GARAJEAK

### 201. SALDU

**Bergara.** Ozaetan garajea salgai. 646 03 24 93.

**Oñati.** Garaje itxia dago salgai Olakua auzoan. Auto baten-dako lekua. 616 17 77 79.

### 203. ERRENTAN EMAN

**Arrasate.** Garaje itxia Larrea aldean. Bi autotendako lekua. Gaudu deitu. 946 81 94 51.

### 204. ERRENTAN HARTU

**Bergara.** Zubiaren, Martokan edo Ozaetan garaje itxia hartuko nuke errentan. 679 62 69 64.

## 3/ LOKALAK

### 301. SALDU

**Bergara.** Bekoalden 82 metro koadroko lokala salgai. 620 17 80 47.

## 4/ LANA

### 401. ESKAINTZAK

**Aretxabaleta.** Neska edo emakume arduratsua eta euskalduna behar dut umeak zaintzeko. 943 71 20 57.

**Bergara.** Adineko emakumea zaintzeko emakumea behar da, abuzturako. Etxean bertan bizitzeko. Esperientzia eta informea beharrezkoak. 943 76 14 18.

**Bergara.** Pertsona bat behar da etxeko lanak egiteko. Aste-an bi egunetan goizez. Gaudu deitu. Kontxi. 943 76 03 31.

**Bergara.** Pertsona bat behar da umeak zaintzeko eta etxeko lanak egiteko. 943 76 06 69.

### 402. ESKAERAK

**Arrasate.** Emakumea gertu orduka garbiketako lanak egiteko. 943 77 00 26.

**Arrasate.** Mutil euskalduna lanerako gertu. 659 82 75 18.

**Bergara.** Hamasei urteko neska jaietan eta uztailean lan egiteko gertu. 666 23 18 05.

**Bergaran,** bi boliviar sukaldari laguntzaile, igeltsero edo peoi bezala lan egiteko gertu. 677 05 99 99 edo 665 75 52 11.

**Debagoiena.** 37 urteko emakumea lanerako gertu. 649 38 51 86.

**Debagoiena.** Emakume euskalduna gertu goizez lan egiteko. 686 89 98 84.

**Debagoiena.** Emakume gaztea lanerako gertu: garbiketako, umeak zein zaharrak zaindu... Rada. 690 26 70 27.

**Debagoiena.** Neska lanerako prest. 620 51 34 25.

**Debagoiena.** Sukaldaritza ikaslea, esperientziaduna, aste bukaerarako lan bila. 606 36 29 27.

## USURBIL

**Usurbilen, Urbil merkatal-zentruaren ondoan LOKALA SALGAI EDO ALOKATZEKO**

**420 m2. Bulego bezala erabiltzeko egokitu. Argitsua. Ordenagailu-sarea instalatua. Ordenagailu askorendako hargunea.**

**943 36 30 40**

**Igeltseroa.** Esperientzia duen goi-mailako igeltsero peoi eskaintzen da, Arrasaten, Aretxabaletan edo Eskoriatzan lan egiteko. 617 73 09 02.

## 5/ IRAKASKUNTZA

### 502. EMAN

**Arrasate.** Oinarriko ikasketen (arreta, pertzepzioa, oroimena) eta

irakur-idazmeneko zailtasunak dituzten umeendako laguntza eskolak emango nituzke. 645 73 04 69.

## 6/ MOTORRA

### 601. SALDU

**Daelin** NS2 125 cc. motoa salgai. Bost urte. 943 76 74 19.

**Ford** Escort Atlanta TD autoa salgai. 90 ZP. 145.000 km. Ondo dago. 943 76 10 27.

**Garbi S.L.**

**PIPIEN, TERMITEN, ETA ABARREN AURKAKO TRATAMENDU ANTIXILOFAGOAK EGURREAN, ALTZARIETAN, ETA ABARRETAN.**

**943 33 18 37 (HERNANI)  
649 84 67 09 (BERGARA)**

**Galopper** Santamo monobolumena salgai. 2000. urtekoa. Egoera onean. Prezio interesgarria. 943 79 47 43.

**Golf 3 TDI** autoa saltzeko daukat. SS-AV. Osagarri asko ditu. 635 71 20 43.

**Honda** CB Two Fifty 250 motoa salgai. 1995koa. 27.000 km. Gurrupil aldatu berriak. Oso ondo dago. 1.700 euro. 658 73 57 66.

**Jeep** Cherokee autoa salgai. 2.5TDI, full escape. 1998. urtekoa. 659 04 20 99.

**Opel** Astra Caravan 2.0. DL. 80.000 kilometro. 1999ko ekainekoa. 629 56 29 25.

**Peugeot** 306 XSI 2.0 autoa salgai. M-SG. 133.000 km. Hiru plater, zazpi hortz eta txirrina. 300 euro. Nerea. 943 79 68 18.

**Saab** 900 2.3i Coupe autoa salgai. Berde iluna. 1994koa. 170.000 km. Gurrupil berriak. Oso ondo zaindua. 3.600 euro. 943 79 40 44 edo 626 94 16 75.

**Seat** Cordoba 1.6 autoa salgai. Gasolina. 100.000 km. 3.155 euro. 686 39 47 02.

**Suzuki** GS 500 E motoa salgai. 1991koa. Urdina. Ondo dago. 1.200 euro. Telefonoa: 659 70 44 64.

**Suzuki** Vitara autoa salgai. 4 ate, 100.000 kilometro, gasolinazkoa. Oso ondo dago. 609 36 73 47.

**Yamaha** Facer 600 motoa salgai. 3.000 km. Ia berria. 607 97 79 32.

## 7/ ANIMALIAK

### 701. SALDU

**Txakurkumeak** salgai. Border-Collie arrazakoak dira. 943 79 97 06.

## 8/ DENETARIK

### 801. SALDU

**Bideokamera** salgai. Berria. 150 euro. 943 53 21 82.

**Bizikleta.** Estreinatua bariko bizikleta salgai. Decatlon Twin. Hiru plater, zazpi hortz eta txirrina. 300 euro. Nerea. 943 79 68 18.

**Butaka** saltzeko daukat, relax motakoa. Hankak luzatzeko automatikoa da. Prezio onean. Asier edo Itziar. 617 17 15 88 edo 659 81 59 15.

**Denda karroa** salgai. 943 79 69 52.

**Esakiak** salgai. Carvin markakoak. Volki V31. Rossignol fijazioekin. Neurria: 1,70. Prezioa: 150 euro. 636 42 74 65.

**Numark** markako bi DJ plater salgai. Urtebete dute. Ondo zainduta. 660 59 20 12.

**Tresnak** salgai: sasi-garbitzeko bizkarreko makina, ortua lantzeko makina, motozerra eta ardiei ilea mozteko makina. 609 36 73 47.

# CG CONSULTORIO GINECOLOGICO

## Talde osoa emakumearen eskura:

- Antonio Estomba
- Fernando Cristobal
- Alfredo Otalora
- Jose M. Gomez
- Ainhoa Larrea
- Domingo Murgiondo
- Miguel Gabarain
- Maria Jose Ruiz
- Fatima Azkue
- J. Rodriguez
- Mikel Gorostidi
- Nerea Marin

**Antzutasuna  
Erditzeak  
Antisorgailuak  
Menopausia  
Ekografiak (4D)  
Titietako gaixotasunak  
Minbiziaren diagnostiko goiztiarra  
Hezur dentsitometria**

Arrasateko kontsultategia:  
Zerkaosteta 17, behea  
Tel.: 943 79 20 18

  
Policlínica Gipuzkoa

Donostia. Tel.: 943 30 82 08  
Eibar. Tel.: 943 12 10 21  
Irun. Tel.: 943 61 78 88






**Yago Romero Carballares**  
Arrasate • Apirilaren 23a • **Gurasoak:** Manu Romero (Arrasate) eta Maribel Carballares (Arrasate). Argazkian, jaioberría amaren besoetan.



**Amalur Caballero Vienes**  
Arrasate • Apirilaren 26a • 3,270 Kg. • **Gurasoak:** Dioni Caballero (Arrasate) eta Yolanda Vienes (Arrasate). Argazkian, umea aitarekin batera.



**Nerea Catania Lopez**  
Arrasate • Apirilaren 26a • 3,425 Kg. • **Gurasoak:** Elisa Catania (Aretxabaleta) eta Mario Lopez (Aretxabaleta). Argazkian, umea amarekin batera.



**Xena Vinagre Ribeiro**  
Eskoriatza • Apirilaren 27a • 3,450 Kg. • **Gurasoak:** Jose Ignacio Vinagre (Gasteiz) eta Luci Ribeiro (Ourense). Argazkian, umea amaren besoetan.



**Beñat Kortabarría Carnicero**  
Bergara • Apirilaren 27a • 3,000 Kg. • **Gurasoak:** Unai Kortabarría (Bergara) eta Leire Carnicero (Bergara). Argazkian, jaioberría amaren besoetan.



**Monika Fuentes Iglesias**  
Arrasate • Apirilaren 27a • 4,020 Kg. • **Gurasoak:** Timoteo Fuentes (Arrasate) eta Rosa Iglesias (Arrasate). Argazkian, umea gurasoekin.

## HILDAKOAK

**Isabel Bengoa Lete.** Oñatin, apirilaren 26an. 47 urte.

**Agustin Etxeberria Biskalaza.** Bergaran, apirilaren 27an. 81 urte.

**Catalina Elorza Kortabarría.** Arrasaten, apirilaren 27an. 83 urte.

## URTEURRENA

### Juan Jose Laskurain Askasibar

Lehen urteurreneko meza  
domekan, maiatzaren 2an,  
10:30ean,  
Uberako elizan.



*Elizkizunetara joango zaretenoi,  
aldeztatik eskerrik asko sendikoen izenean.*



**Bixente Retegi eta Pepi Altolagirre** bergararrek datorren astelehenean beteko dituzte urrezko ezteiak. 1954ko maiatzaren 3an, hain zuzen ere, ezkondu ziren Bergarako Santa Marina parrokiari. Datorren domekan, maiatzak 2, ospatuko dute urteurrena. Zorionak, bikote, familia osoaren partetik!

## URTEURRENA

### Benancia Pagola Gonzalez de Mendibil

*Beni*

Lehen urteurreneko meza  
martitzenean, maiatzaren 4an,  
19:00etan,  
Arrasateko San Frantzisko elizan.



*Elizkizunetara joango zaretenoi,  
aldeztatik eskerrik asko sendikoen izenean.*



**Jose Tejada eta Isaura Ansola** bergararra eta debarra bihar ezkonduko dira Loiolako basilikan. Ezkondu ondoren Italiara joango dira eztei bidaian. Zorionak, bikote, familia osoaren partetik!


## URTEURRENA

### Begoña Heriz Aranzabal

Lehen urteurreneko meza  
domekan, maiatzaren 2an,  
11:00etan, Garagartzako  
Migel Deunaren elizan.



*Elizkizunetara joango zaretenoi,  
aldeztatik eskerrik asko sendikoen izenean.*



**Maite Arribillaga eta Unai Calleja** irundarra eta aretxabaletarra Bergarako udaletxean ezkondu ziren joan den zapatuan, apirilak 24. Abuztuan egingo dute eztei bidaia Karibera. Zorionak, bikote, etxeko guztien partetik!

Eskela, urteurren meza edo eskertzarik jarri nahi baduzu, etor zaitez GOIENKARIAren ordezkarietako batera.

**GOIENKARIA**  
Astero 21.500 etxetan.  
Eskelen prezioa: 80 €.



amaia corrales  
maite aldaz

## Psikologia kontsulta

- Familia, bikote eta bakarkako terapia
- Diagnostiko txostena
- Umeak, gazteak eta helduak

San Anton 10, 2. solairua. Oñati 943 78 01 55  
Usandizaga 29, 1-B. Donostia 656 90 49 50

**NATUR HOUSE**  
Dietetika eta Elikadura

**KONTSULTA DOHAINIK**  
Zatoz eta konpromisorik gabe galdetu.

EDURNE ARKAUZ  
Dietetika eta Elikaduran Diplomatu

Maalako Errabala 27, behea ARRASATE Tel.: 943.79.04.34



IONE BEITIALARRANGOITIA / HAUR, GAZTE ETA HELDUEN PSIKOTERAPEUTA HUMANISTA

# “Psikoterapia garapen pertsonalerako aukera bat da”

**I**one Beitialarrangoitia haur, gazte eta helduen psikoterapeuta humanista da, eta berekin izan gara, bera eta bere lana sakonago ezagutzeko. Hauxe izan da Ionerekin izan dugun solasaldia.

## Azalduko zeniguke zer den psikoterapia prozesu bat?

Psikoterapia, nik ulertzen dudan moduan, pertsonarentzako aukera bat da: min egin eta blokeatzen gaituena gainditzeko; garapen pertsonalerako; sentitzen dugunaz hitz egin eta hausnartzeko; azken baten, sufrimendua gutxitu eta bizi izateko poza berreskuratzeko aukera da.

Terapiaren helburua da gauden ondoezetik ateratzea, gure baliabide propioez. Gure behar, desio, beldur, kezka, aukera, zailtasun, potentzialitateaz jabe egiten gara, bizi izateko grina berreskuratuz.

Prozesu terapeutikoan emozio, sentipen eta pentsamendu guztiei (mingarriak, goxoak, zailak, gogorak...) leku bat eskaintzen zaie, eta aurreiritziak alde batera utziz landu ahal izango dira.

Psikoterapia prozesu bat da, kontzientziara, autoerrealizaziora eta askatasunera eramán gaitzakeen bidea. Zaila izan daiteke une batzuetan, baina merezi du; merezi dugu.

## Haurrekin, gazteekin eta helduekin egiten duzu lan, ezta?

Bai, horrela da, nahiz eta helduekin edo haurrekin egiten den lana oso desberdina den.

Pertsona heldua bere kabuz etorri ohi da ondoez sentipen edo arazo zehatz bategatik, eta pauso hau emateak prozesu terapeutikoaren zati garrantzitsuenetariko bat dakar. Kontsultan plazaratzen dituen emozio, sentipen eta pentsamenduak modu kontzienteagoan landu ahal izango ditugu.

Haurren kasuan, ez dira bere kabuz etortzen eta askotan ez dute ulertzen zergatik ekarri dituzten gugana. Bestalde, haurren ezaugarri propioak direla eta, zaila egiten zaie barnean sentitzen dutenari hitzak jartzea eta ez dute jakiten emozio



hauek nola maneiatu. Honegatik, jolasaren eta beraien ahalmen sortzailearen bidez landu ahal izango dira eduki emozionalak.

## Zein arazorengatik joan daiteke pertsona bat psikoterapiara?

Kontsultarako motibazio nagusia ondoeza da. “Zer gertatzen zaizu?” galdera egitean, erantzunak pertsonak bezain ugariak izan daitezke: gaizki sentitzea, hutsunea, barne korapiloa, angustia, estresa, ilusio falta... Askotan zaila egiten zaigu barnean bizi ditugun emozioei izen bat ematea eta ez dakiugu zer gertatzen zaigun. Barne korapilo hauek bultzatzen gaituzte laguntza eskatzera.

Gazte eta helduen kasuan, kontsultara ekartzen dituzten arazoak ugariak dira: antsietatea, depresioa, arazo emozionalak, bikote edo familia arazoak, autoestima baxua, estresa, energia falta, fobiak, insomnioa, pertsona garrantzitsu baten heriotza, hutsune sentipena, hobe sentitzeko grina, garapen pertsonala, kontzientziaren zabaltea...

Haurren kasuan gurasoen edo ikastetxearen bidez etor daiteke kezka: arazo emozionalak, beldurrak, jokaera arazoak, autoestima baxua, eskola arazoak, biolentzia, arazo emozionalak ondorioztatutako arazo fisikoak, autismoa, enuresia, hiperaktibitatea... Haurrak ondo sentitzen ez direnean jokaerazko sintomen bidez esaten digute laguntza behar dutela.

## Zein da psikoterapeutaren papera?

Terapeutak laguntzaile eta euskarri gara, batzuetan zaila izan daitekeen bidaia honetan. Konfiantza eta segurtasun gune bat eskainiko dugu, gure emozio, pentsamendu, jokaera, desio eta beldurrak mehatxurik gabe bizi ahal daitezen.

Honela, pixkanaka gure bizi-tza modu kontziente eta arduratsuagoan gidatu ahal izango dugu. Terapeutok iluntasunean argia eskaini dezakegu, baina pertsona bera izango da bere pausoez bidea egingo duena, eta gu ondoran izango gaitu.

“Bizi-poza berreskuratzeko aukera da terapia”

“Kontsultarako motibazio nagusia ondoeza da”

“Terapeutak prozesuko laguntzaile eta euskarri gara”




HAUR, GAZTE ETA HELDUEN  
**PSIKOTERAPIA**  
IONE BEITIALARRANGOITIA  
PSIKOTERAPEUTA HUMANISTA

*Zatoz! Bete-bete bizi eta gozatzeko eskubidea duzulako!*


Tel.: 943 71 65 48 / 657 72 00 49  
ibeitalz@yahoo.com  
Kale Zaharra 5, behea, esk. OÑATI





**'Astebete'**

EGUBAKOITZA, 1 / 20:30 eta 22:30



**'Harmailatik'**

ASTELEHENA, 1 / 21:15 eta 23:15



**'Iragana gogoratzuz'**

MARTITZENA, 30 / 20:30 eta 22:30



**'Iluntzean'**

EGUENA, 1 / 21:15 eta 23:15

**Eibar-Gasteiz autobidearen eraginak Eskoriatzan**

**E**skoriatzarrak ez daude autobidearen aurka, baina uste dute euren lurretan horrenbesteko kaltea eragin barik egin daitekeela. Gai hori aztertuko du Goiatz Arana kazetariak *Astebete*-n. Kaltetuen testigantzak jasoko ditu.

**Ibarreko kirol guztiei asteleheneko gainbegiratua**

**B**etiko moduan ibarreko futbol kontuek beteko dute *Harmailatik* saiko zatirik nagusia. Edonola ere, gainerako kirolek ere izango dute euren tartetxoa Julen Iriondo kazetariak aurkezten duen asteleheneko kirol saioan.

**Ternuko uretan... euskaldunak arrantzan**

**A**ntzina euskal arrantzaleak baleak arrantzatzerara joaten ziren Ternura. Gero, arrantza hori negozio bilakatu zen. Debagoiendar ugari aberastu zen orduan. *Iragana gogoratzuz* saioan kontu horiek argituko dizkigute.

**Filgi Claverie, Biarrizko baletaren zuzendaria**

**B**iarrizko baletaren zuzendaria izateaz gain, Seaskako zuzendari ere bada Filgi Claverie. Herri Urrats festa ere laster izango dugu; hortaz, izango du zertaz hitz egin Aintzane Gardokirekin. Beti bezala, *Iluntzean* elkartuko dira.

**TELEBERRIAK**

**'Pásalo' magazina hasiko da maiatzaren 3an ETB2n**

Astelehenetik ostiralera, 16:45ean, *Pásalo* magazina emango dute ETB2 katean, maiatzaren 3an hasita. Gizarte gaiak jorratuko dituzte, eta ikus-entzuleen parte-hartze zuzena eta entretenimendua lortzen ahaleginduko dira. Euskal Herrian albiste iturri diren gertaerak eta kaleko jendearentzat interesa dutenak jorratuko dituzte. Adela Gonzalezek aurkeztuko du saio berria.

**Alfredo Urdaci TVEko albistegietako zuzendaritzatik kendu dute**

TVEko zuzendariak eta RTVEko zuzendari nagusiak sinatutako gutun baten bidez, kargutik kendu dute la ofizialki adierazi diote Alfredo Urdaciri. Urdazik hilaren 20an aurkeztu zuen azkeneko albistegia. TVEko albistegietako zuzendari berria Fran Llorente da eta Lorenzo Mila kazetaria izango da gaueko albistegietako aurkezlea.

**Lehia handia sortu da Telecinco eta Antena3 kateen artean**

T5 eta A3 inoiz baino lehia-korrango dabiltza aspaldi honetan. Gauetako programazioan igar daiteke lehia hori eta, gehienbat, *Los Serrano* (T5) eta *Aquí no hay quien viva* (A3) telesailen artean. T5ek egunen ematen zuen lehen *Los Serrano*, baina TVE1eko *Cuéntame*-rekin ez lehiatzeko eguaztenera pasa zuten. Orain, *Aquí no hay quien viva*-k emaitza hobekitu eguaztetenan.

**ASTEKO PROGRAMAZIOA / Apirilaren 30etik maiatzaren 6ra**



EGUBAKOITZA, 30	ZAPATUA, 1	DOMEKA, 2	ASTELEHENA, 3	MARTITZENA, 4	EGUAZTENA, 5	EGUENA, 6
13:30 Gatzeta eta berakatza 14:00 Sarrera doan 14:30 Berriak 15:00 Iluntzean 15:30 Berriak 16:00 Gatzeta eta berakatza 16:30 Emisio amaiera  19:45 Gatzeta eta berakatza 20:00 Berriak 20:30 Astebete 21:00 Gaurkoak 21:15 Soinuz blai 21:45 Gatzeta eta berakatza 22:00 Berriak 22:30 Astebete 23:00 Gaurkoak 23:15 Soinuz blai 23:45 Emisio amaiera	13:30 Astebete 14:00 Soinuz blai 14:30 Txintxaun 15:00 Goienan, herriz herri Jose Angel Zabalo Antzuolako alkatea elkarrizketatu zuen Alberto Gorritibereak. 16:00 Sarrera doan Doctor Deseo eta Udala auzoaren gaineko erreportajeak. 16:30 Iluntzean Benito Lertxundi abeslariarekin izandako solasaldia.	13:30 Astebete 14:00 Soinuz blai 14:30 Txintxaun 15:00 Goienan, herriz herri Jose Angel Zabalo Antzuolako alkatea elkarrizketatu zuen Alberto Gorritibereak. 16:00 Sarrera doan Doctor Deseo eta Udala auzoaren gaineko erreportajeak. 16:30 Iluntzean Benito Lertxundi abeslariarekin izandako solasaldia.	13:30 Gatzeta eta berakatza 14:00 Astebete 14:30 Berriak 15:00 Soinuz blai 15:30 Berriak 16:00 Gatzeta eta berakatza 16:30 Emisio amaiera  19:45 Gatzeta eta berakatza 20:00 Berriak 20:30 Harmailatik 21:00 Gaurkoak 21:15 Harmailatik tertulia 21:45 Gatzeta eta berakatza 22:00 Berriak 22:30 Harmailatik 23:00 Gaurkoak 23:15 Harmailatik tertulia 23:45 Emisio amaiera	13:30 Gatzeta eta berakatza 14:00 Harmailatik 14:30 Berriak 15:00 Harmailatik tertulia 15:30 Berriak 16:00 Gatzeta eta berakatza 16:30 Emisio amaiera  19:45 Gatzeta eta berakatza 20:00 Berriak 20:30 Iragana gogoratzuz: Ternuko uretan 21:00 Gaurkoak 21:15 Lanabesak 21:45 Gatzeta eta berakatza 22:00 Berriak 22:30 Gaurkoak 23:00 Iragana gogoratzuz: Gaurkoak 23:15 Lanabesak 23:45 Emisio amaiera	13:30 Gatzeta eta berakatza 14:00 Iragana gogoratzuz 14:30 Berriak 15:00 Lanabesak 15:30 Berriak 16:00 Gatzeta eta berakatza 16:30 Emisio amaiera  19:45 Gatzeta eta berakatza 20:00 Berriak 20:30 Txintxaun 21:00 Gaurkoak 21:15 Soinuz blai 21:45 Gatzeta eta berakatza 22:00 Berriak 22:30 Txintxaun 23:00 Gaurkoak 23:15 Soinuz blai 23:45 Emisio amaiera	13:30 Gatzeta eta berakatza 14:00 Txintxaun 14:30 Berriak 15:00 Soinuz blai 15:30 Berriak 16:00 Gatzeta eta berakatza 16:30 Emisio amaiera  19:45 Gatzeta eta berakatza 20:00 Berriak 20:30 Sarrera doan 21:00 Gaurkoak 21:15 Iluntzean: 21:45 Gatzeta eta berakatza 22:00 Berriak 22:30 Sarrera doan 23:00 Gaurkoak 23:15 Iluntzean 23:45 Emisio amaiera
22:30 Astebete			21:15 Harmailatik tertulia	20:30 Iragana gogoratzuz	21:15 Soinuz blai	21:15 Iluntzean

GOIENA TELEBISTA / Posta elektronikoa: goitb@goiena.com • Telefonoa: 943 71 23 95

**KAMERA AURREAN**



*"Autopista eraikitze proiekta egin ondoren, Eskoriatzako gunean aurretik egindako trazatua aldatu izana salatu gura dugu guk gaur Donostian".*

Maite Beitia / Kaltetuen elkarteko kidea 'Berriak' (2004/04/26)



*"Jende gehiagoren parte-hartzea bultzatzeko helburuarekin egingo dugu aurten Ojala-Zelaiko krosa maiatzaren 16an, hau da, Ojala-Zelaia egunean".*

Asier Muxika / Kirol teknikaria 'Berriak' (2004/04/28)

**TELEBEGI / Edorta Arana**

*Narkotikoak*

**M**artxoaren 11ko atentatuaren ostean, lagun batek esan zidan *Salsa rosa* edo *Dónde estás corazón* bezalako telebista saio bat beharrezkoa izan zuela Madril gertaturikoak burutik kendu eta lotarako behar zuen tenplea irabazi arte. Badut nik telebistan beste programa mota bat eguneroko tentsiotik libratu eta arazoan ziztada samurtzen laguntzen didana: tele-salmenta. Eragin hipnotikoa eta dena daukala sinistuta nago. Iragartzen duten produktua baino gauza beharrezkoagorik eta zoriona sortzeko hoberik ez dagoela sinistarazten dizute. Horretarako, amaierarik gabeko erretolirik, produktua aurkeztu (pikagailua, labanak, audifonoa, faja-sauna...), bere abantailak azaldu eta gero, espezialista baten iritzia eta jende arruntari eginiko inkestak tartekatzen dira. Erritmo bizia, sinesgarria eta dependentzia sortzailea dela iruditzen zait. Azalpenak irauten duen bitartean ahaztu egin zenitzake baita Alcanal duzun lehengusina edo Iruñean ebakuntzaren ondoretan bizi dena ere.



# Eskerrik asko guztioi!

Begarako antolatzaileok  
eskerrak eman nahi dizkizuegu  
herritar guztiei  
jasotako laguntzagatik.

Batez ere, honako entitate eta lagunei:

## ENTITATE LAGUNTZAILEAK

- ACERALIA
- AGORROSIN Matrizeria
- ALOÑA MENDI Txirrindulari saila
- ALURA
- ANTXONI Jatetxea
- APERRIBAI Industriak
- ARANETA
- ARANZADI IKASTOLA
- ARIZNOA Hotela
- ARIZNOA Kafetegia
- ARTATSE Elkartea
- ATXEGA Ardoak
- AURRE LAN
- AVENIDA Kafetegia
- BARRENKALE Frutategia
- BERGARA K.E. (PILOTA SAILA)
- BERGARA KAFE-PENTSIOA
- BERGARA MARGOAK
- BERGARAKO UDALA
- BERRIGARA
- BICIPRECISION IGARTUA
- BILTOKI
- BOLINTXO Kirol-etxea
- BOLINTXO Okindegia
- CANDY
- CICLOS I-2
- CORREOS
- DHL Express
- DISSOL-PRAXAIR
- EGON Kafetegia
- ELAY
- ELGETAKO Txirrindulari Elkartea
- EROSKI
- ERREKI Erretegia
- ETXEBERRIA Erlojutegia
- ETXEPARE-BILINTX
- EUSKADIKO KUTXA
- EUSKO S.A.
- FEGAR Industriak
- FIT AUTOMOTION
- FRONTON Taberna

- GAZTELU Burdindegia
- GALWAYS IRISH PUB
- GANBARA Taberna
- GEYSER-GASTECH
- GIAUTO
- GOXO-PE Elkartea
- GRUPISA
- GULA DEL NORTE
- GUREA Tailerrak
- HIRU Haroztegia
- HIRUK-BAT Igeltseroak
- I.M.ALTUNA
- IRAUNDI
- IRRINTZI Kafetegia
- IZPI
- KAFE Taberna
- KALEBARREN Instalazioak
- KATAIDE Txakoliña
- KONDE PANADEROKUA
- KORTAZAR Txokolategia
- LAGUN-ARO Aseguruak
- LARRAÑAGA Auto eskola
- LASA Jatetxea
- LAZPIUR
- LITXAR Kroasandegia
- LOKATZA Txirrindulari Eskola
- MARIAREN LAGUNDIA IKASTOLA
- MARMOLERIA BERGARESA
- MATZ-ERREKA Koop.Elk.
- MAURICIO ARREGI
- MAXIM'S Kafetegia
- METAGRA
- MINER Ardoak
- MOSTEI Tailerrak
- MUJIKA Kautxoak
- MULTIOPTICAS
- MUSIKA ESKOLAKO BANDA
- NINIKA Ioradenda
- ORNI
- ORTUIBAR
- SAN MARTIN IKASTOLA
- SANTANDER-CENTRAL-HISPANO Banketxea
- SORALUZE Koop.Elk.

- SUMOFIC
- TAVEX-ALGODONERA SAN ANTONIO
- TECNOSYSTEM
- TEKNIBER
- TELLERARTE Txirrindulari elkartea
- TER 2 Indusketak
- TOSTOIEEN ETA ERRELLENOEN KOFRADIA
- T.T.T.
- TXIPI Aluminioak
- TXIPIRON Elkartea
- UDAL MUSIKA BANDA
- UGARTE Haroztegia
- ULMA
- USOA Taberna
- ZABALETA Errotuloak
- ZANGITU Industriak
- ZER NAI Kafetegia
- ZULOA Elkartea
- ZUMELAGA Jatetxea

## PARTIKULARRAK

- Agirre Jose Antonio
- Agirre Patri
- Alberdi Ariane
- Alberdi Landa Martin
- Altzerreka Jose Luis
- Amenabar Arkaitz
- Aperribai Izaro
- Arana Arkaitz
- Aranguren Jose
- Aranzabal Felipe
- Aranzabal José M.
- Aranzabal Juan Mari
- Arrieta Gurutz
- Arrieta Iñaki
- Arrieta Jose
- Arrondo Carlos
- Arrondo Gonzalo
- Arzelus Iñigo
- Arzelus Jon
- Atorrasagasti Alberto
- Azkarate Sabin
- Azpeitia Ramon
- Balentziaga Joxe

- Barbero Agustin
- Barrenetxea Javier
- Bauza Igor
- Bilbao Isa
- Bolibar Alberto
- Caballero Iban
- Castillo Ricardo
- Dominguez Mikel
- Elkoro Angel
- Elkoro Arana Mikel
- Elkoro Arana Unai
- Elkoro Iñaki
- Erdabide Fernando
- Erdabide Xabier
- Errasti Pello
- Etxaniz Miguel
- Etxaniz Ramon
- Etxeberria Jose M.
- Etxeberria Joxan
- Etxeberria Martin
- Ezenarro Jon
- Ezkurra Angel Felix
- Fernandez Jose Luis
- Gabilondo Igoitz
- Gabilondo Jose
- Gabilondo Jose M.
- Gabilondo Ramon
- Gallastegi Ramon
- Gantxegi Josune
- Gantxegi Mikel
- Garitano Igor
- Garitano Jon Ander
- Garitano Lamarain Mikel
- Garitano Roman
- Garitano Xabier Patxi
- Garitaonandia Eusebio
- Gil Antonio
- Igartua Jose M.
- Ilarduia Jesus M.
- Iñiguez Felix
- Iñurrategi Igor
- Irazabal Gotzon
- Irazola Iñaki
- Irizar Markel
- Kortabarria J. Luis
- Kortabarria Juanito
- Larrañaga Andoni

- Larrañaga Germán
- Larrañaga Iñaki
- Larrañaga Iñigo
- Larrañaga José M.
- Larrañaga Juan Francisco
- Lazpiur Miguel Angel
- Lete Elias
- Lete Pedro Mari
- Maiztegi Felix
- Markiegi Jose Manuel
- Mendizabal Aintzane
- Migura Juan Antonio
- Morillas Aurelio
- Muguruza Joseba
- Mujika Iñaki
- Mujika Jose Ramon
- Mujika Luis M.
- Mujika Peli
- Mujika Santi
- Ojea Jose Antonio
- Olañeta Iñigo
- Oregi Juan M.
- Osa Juanito
- Osa Patxi
- Pagaldai J. Migel
- Pedregon Iñaki
- Penabad Asier
- Perez Sanchez Jesus
- Prat Doroteo
- Rubio Jose M.
- San Miguel Iñigo
- Sanchez Iker
- Sasigain Jose Ramon
- Teran Aureliano
- Unamuno Jon
- Uriarte Felipe
- Uribe Aperribai Andres
- Uribesalgo Patxi
- Urzelai Mireia
- Zabala Martin
- Zabala Suinaga Lauri
- Zabaleta Remigio
- Zaitegi Iñigo
- Zaitegi Martin
- Zaitegi Martin (laguna)
- Zangitu Iñaki
- Zubia Santos



EUSKAL HERRIKO TXIRRINDULARI ITZULIA  
BERGARAKO ANTOLATZAILEAK

## Atzeskua

USOA AGIRRE

# Tomas Larrañaga/ Lorezaina

### Noiztik duzu Antzuolako lorategiak zaintzeko ardura?

Duela zortzi urte, 1996an hasi ginen herriko lorategiak zaintzen. Lorategiak diseinatzeko ditut, jartzen ditut landareak eta gero nik zaintzen ditut guztiak.

### Antzuolarrek kontuan hartzen dute zuen lana?

Arazo handiena da herri-tarren kontzientzia falta. Lorategiak erabiltzen dituzte txakurrek kaka egin dezaten edo umeak bertan uzteko jolasean. Azkenean, horrekin ikusten da gauza

politik egiteko dudak gogoia nola baloratzen duen jendeak. Batzuek baloratzen dute, beste batzuek ez. Baina, orokorrean, antzuolarrak pozik daude lorategiekin, guztien gustukoak jartzea ezinezkoa da-eta.

### Zer behar du herriak politagoa izateko?

Antzuola basoz inguratuta dago eta nahiko leku polita da. Orain arte bai, behintzat, autobide eta abiadura handiko trenik gabe. Horrelako herri batean ezin da egin ingurukoarekin loturarik ez duen lorategirik. Kontuan izan behar da

non gauden eta inguruan zer dagoen. Kanean ez lirateke lorategi asko beharko inguruak hobeto txukunduta baleude, baina lurrak partikularrenak direnez, hor norberak ikusiko du zer egin.

### Udaberrian alergiak asko eragiten ditu polenak. Zuk izaten duzu arazorik?

Ez, zorionez ez daukat inongo arazorik naturarekin; ez polenarekin, ezta zomorroekin ere.

### Eman aholkuren bat udaberrian lore politik edukitzeko balkoietan.

Norberaren irudimena, lana eta dedikazioa beharrezkoak dira lore politik edukitzeko. Kontuan izan behar dugu loreek egunero jan behar dutela, gure moduan, eta egunero ureztatu behar ditugu; bero egiten duenean eguneko hiru aldiz. Beti kontuan hartuta lorearen tenperatura berean egon behar duela urak ere.

### Herriko lorategiak politik daude; nola dituzu etxeko loreak?

*Errementariaren etxean, zotza burruntsi*, dio esaera zaharrak, eta hemen ere horrelako zerbait gertatzen da batzuetan. Barruko loreak gure amak ureztatzen ditu; eta kanpokoak nik zaintzen ditut. Egia esan, ez daude zatarrak, baina politagoak egon izan dira.

### Oparitu diozu inoiz lorerik norbaiti?

Askotan oparitzen ditut loreak. Esaten dute loreak oparitzea bizitza oparitzea dela. Loreek kemena ematen dute, eta guztiok behar izaten dugu noizbait bultzakadaxo bat bizitzan aurrera egiteko.

### Eta zuri oparitu dizute inoiz lorerik?

Uste dut baietz, baina ez dut gogoan. Lorezain bati loreak oparitzea nahiko zaila dela dirudi, baina niri oparitzeko edozein lorek balio du.

## PIPERRAUTSA

### Bisitariak

Gipuzkoako Batzar Nagusiak bildu dira berriki Arrasaten, azken aldiko 25 urteak ospatzeko. Hori dela-eta, jende asko inguratu zen bisitan, batik bat politikari eta kazetariak.

Nago askorentzat nahiko abentura izango zela hona etortzea, mendi artera. Zenbaitek ez zuen ezagutu ere egingo errekan gora bizi den tribua, debagoiendarrena. Auskalo nola ikusi gaituzten. Gaitz erdi gogorik geratu bazaie berriro etortzeko. Bisitan, noski.

Zerbait ez dabil ondo Gipuzkoan. Edonork ikus lezake Donostia dagoela maparen mutur batean, eta gipuzkoarrak gaudela oso sakabanatuta, bostetik bat bakarrik bizi dela hiriburuan. Eta hala ere, herrialdeko bizitza publikoa gauzatzen da ia bakarrik Donostian, oraingo honen moduko bisitak gorabehera.

Ordua da hau aldatzen hasteko. Eta Txabarri diputatu nagusiari entzuna diot lurraldea orekatu nahi duela. Ea noiz jartzen digun aldundi egoitza egonkorra ibarrean, bulego eta areto egokiekin, adibidez, Batzar Nagusiak edo gobernu bilerak hemen maiz egiteko. Edo noiz sortzen duten Koldo Mitxelena sukurtsala gurean, kultura hona etor dakigun, beti gu bila joan barik. Adibidez. Gasteizek jan du Araba, eta Bilbo bidean da Bizkaiarekin. Baina Gipuzkoa askoz gehiago da Donostia baino. Merezki dugu egituraketa deszentralizatua. Giputz ordezkariek ez daitezen izan Debagoiengan bisitari.

MIKEL IRIZAR



**“Kanean ez lirateke lorategi asko beharko inguruak hobeto txukunduta baleude”**

**“Norberaren irudimena, lana eta dedikazioa beharrezkoak dira etxeko balkoietan lore politik edukitzeko”**

**“Askotan oparitzen ditut loreak; esaten dute bizitza oparitzea dela”**

► Antzuola / 43 urte / Lorategien arduraduna Antzuolan

## Eraman dotoretasuna zure etxera



**gelatu** s.l.

Zubillaga auzoa 1  
 OÑATI  
 Tel.: 943 71 63 22  
 Faxa: 943 78 15 51

